




Bertizaranako Egunari buruz solasean

03

Ekainaren 7an egingen da Bertizaranako Eguna Narbarten. Bestari buruz hitz egin dugu antolaketabatzordeko birekin: Maria Larretxea eta Miren Irisarri.



Euskal Herriko sei leize elkarlanean

04

Mugarik gabeko lurpea izeneko egitasmoaren baitan bat egin dute Euskal Herriko sei leizek. Horien artean daude Urdazubi, Sara eta Zugarramurdiok.

2008ko maiatzaren 29a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

**JOSEBA LARRALDE
TXIRRINDULARI BERATARRA**

32

Nafarroako txapeldun 23 urtez beheitikoetan



deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK



INTZURI Optika • LESAKA
%10 deskontua



GOIKO Argazki-denda • BERA
%10 kopia digitaletan



KATEA-BIKE • BERA
%5 konponketetan



FOTO MENA
MENA Argazki-denda • **ELIZONDO**
%10 kopia digitaletan

JUAN J. PIKABEA

PIKABEA Arropa-denda • DONEZTEBE
%10 (galtza marka batzuetan izan ezik)

IPINGI

IPINGI Arropa-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



POTTOKI Haurren denda • ELIZONDO
%5 oparitzeko artikulu ttikietan



BIXKIAK Arropa-denda • LESAKA
%10eko deskontua

BERAUTO

BERAUTO Tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioetan



AMAIA Estetika Zentroa • DONEZTEBE
%5 kosmetikan, %10 oparietan

ESKATU ZUREA
948 63 54 58 telefonoan

Zure enpresak ttipi-ttiparen txartela arekin kolaboratu nahi baldin badu, mesedez, jar zaituz harrimametan TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREKIN 948 63 54 58 telefonora deituz.



ttipi txartela arekin

beti irabazten da!

6 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00.

Tel: **948 63 54 58**



1 EUSKAL MUSIKA
RUPER ORDORIKA
KENZAZPI
MIKEL LABOA
OSKORRI
CD-ak opari



www.ekar.org



2 TXAPELA BURUAN

2 kamiseta



www.txapelaburuan.com




3 LAUBURUA
Mahai jokoa.
12 urtetik gorakoentzat

2 joku opari



www.argia.com



4 AQUARIUM
Donostia

2 sarrera



www.aquariumss.com



ONINART
Haur eta helduentzat

2 kamiseta



www.oninart.com



6 NAFARROA OINEZ

Lote 1

Kamisetak • Agenda
Katilua • Kantinplora
Pina • Giltzarria
Xagu-azpikoa • Goxokiak



www.nafarroaoinez.net

ttipi saskia

TTIPI SASKIAren ZOZKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE



ZOZKETA
2 heldu eta
2 haurrentzako
sarrerak

Bidali SMSa idatziz
TTIPI SASKIA
5767ra



Argedas (Nafarroa) • T. 948 088 100 • www.sendaviva.com

Zozketaren balloa maiatzaren 29tik ekainaren 3ra. Irabazlearen izena ekainaren 12ko aldizkarian argitaratuko da. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra

DATUAK...

- Bertze urte batez, Bertizaranako Eguna eginen da, aurten Narbarten. Berrikuntza gisa, lehen aldiz herri krosa antolatu dute: 8,6 kilometroko ibilbidea egiteko lasterketa.
- Batzordean lau lagun daude, bi Narbarteko eta bertze bi Legasako. Oieregikoek oraindik bestan parte hartu gabe segitzen dute.
- 10.000 euroko aurrekontua izanen du aurtengo bestak, eta horretarako Bertizaranako Udalaren laguntza izan dute, eta kroseau ere hainbat entitateren laguntza jaso dute.



Maria LARRETXE eta **Miren IRISARRI** *Batzordeko kideak* UTZITAKO ARGAZKIA

«Hiru herriak elkartu eta bailara bizirik dagoela ezagutaraztea da helburua»

Gurutze PIKABEA

Nork antolatu duzue Bertizaranako Eguna?

Antolaketa batzordean lau lagun gaude, bi Narbarteko eta Legasako bertze bi, baina Legasako eta Narbarteko gazte guztien artean antolatu dugu Bertizaranako Eguna. Bi herrien artean banatzen da antolakuntza eta ez da hain zaila lana. Egunean bertan izanen da lanik handiena: ostatuan edaria badagoen kontrolatu, dirua atera... Aurreko urteetan zer egin den badakigu eta horren arabera egiten da besta aurreko lana. Aurtengo besta antolatzen duela hilabete bat edo hasi ginen.

Zenbateko aurrekontua du bestak?

Guztira 10.000 euro inguruko gastua izanen du, baina laguntza jaso dugu. Alde batetik, Bertizaranako Udalak emandakoa dago eta horrez gain, herri krosa babestu duten laguntzaileena ere hor dago. BKZk ere ate irekien eguna egiten du Bertizaranako Egunean.

Zein da besta egun horren helburua?

2002az geroztik egiten da besta hau

«Azken aldian korrika egiteko ohitura zabaltzen ari da eta egokia iruditu zitzaigun hemen ere herri krosa antolatzea. 8,6 kilometro izanen ditu eta hiru herrietan barna pasatuko da»

eta hasiera hasieratik helburua bailara mailako besta bat egitea da. Bertizaranako hiru herriak —Narbarte, Legasa eta Oieregi— elkartu eta bailara bezala bizirik gaudela adierazi nahi diogu jendeari. Azken urteotan ezagunagoa egin da Bertizarana, jendea mugitzen hasi delako.

Oieregiko kontzejuren hutsa nabaritzen zen besta antolatzen hasi zineten urte haietan. Eta orain?

Ez da kontzejuen gaia, gazteek antolatzen dugun besta baizik. Deia gazte guztiei egiten zaie.

Nolako egitaraua antolatu duzue ekainaren 7rako?

Goizean goiz hasita dianak izanen dira eta segidan gosaria. Kirola egiteko, BKZren eskutik kirol ekintzak izanen dituzte, eta herri krosa ere

eginen da. Horrez gain, azken asteotan entsaiatzen ari garen dantzekin saioa ere eskainiko da. Bazkalondoan Koldo akordeoilariaren txanda izanen da, eta afariaren ondotik Trikidantz taldearekin dantzaldia.

Aurten lehendabiziko aldia da herri krosa antolatu duzuela. Nolatan otu zaizue hori?

Azken aldian korrika egiteko ohitura zabaltzen ari da eta egokia iruditu zitzaigun hemen ere herri krosa antolatzea. 8,6 kilometroko luzera izanen du, eta Narbarten hasi eta akituko da, Bertizaranako hiru herrietan barna pasatu ondotik.

Zer du faltan eta zer soberan zuen ustez Bertizaranako Egunak?

Besta nahiko orekatua dela uste dugu. Soberan gastua eta faltan mus txapelketa.

Aunitzek uste dute Bertizaranako herriak Baztan edo Malerrekaren barne daudela. Zer erranen zeniekete hori uste dutenei?

Ordua dela jakiteko eskualdea nola banatua dagoen. Hala ere, gaur egun garai batean baino gehiago ezagutzen du jendeak Bertizarana.



Leizeetako ordezkariak *Mugarik gabeko lurpea* egitasmoaren aurkezpen ekitaldian.

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

‘Mugarik gabeko lurpea’ ekimenarekin bat egin dute Euskal Herriko sei leizek

Tartean dira Urdazubi, Sara eta Zugarramurdikoak

Euskal Herriko sei leizek elkarlanean *Mugarik gabeko lurpea* izeneko egitasmoa paratu dute martxan. Zehazki, Oñatiko Arrikruz (Gipuzkoa), Urdazubiko Ikaburu, Astizko Mendukilo (Nafarroa), Karrantzako Pozalagua (Bizkaia), Sara eta Zugarramurdiko Sorginen leizeak dira proiektuan barneratu direnak, jatorri beretsua onartu zaien Anaiartutako Leizeak, hain zuzen. Lurrazpian dagoenak —Seigarren Kontinentea deituak— gero eta interes gehiago pizten duela iritzita, «*kobazuloen baliabide natural, ekologiko, historiko eta mitologikoak hedatzeko helburuarekin garatu dugu proiektua*». Hala adierazi zuen Ainhoa Agirre Zugarramurdiko Sorginen Museoko kudeatzaileak bertze leizeetako ordezkariekin maiatzaren 9an Sorginen Museoa egindako egitasmoaren aurkezpenean. 40.000 liburuxka argitaratu dituzte eta horrekin leize bateko bisitariak bertzetara eramatea da helburua. Leizeak bisitatu ahala zigilua paratuko da, eta bigarren bisitatik aitzinera sarreran %20eko deskontua izanen da. Gainera, ekainaren 30a baino lehen sei zigiluak osatuz gero, oparia jasoko du bisitariak.

2008/05/29 • 471. zbk.

Gurutze PIKABEA

«*Kareharriz osaturiko mendigunak eta leizez inguratutako lekuak*». Horrela deskribatu dituzte Euskal Herriko sei leizeetako arduradunek euren inguruak. Horietatik hiru eskualdekoak dira —Urdazubiko Ikaburu, Sarakoak eta Zugarramurdiko Sorginen Leizeak—, eta antzeko jatorria eta bertzelako parekotasunak dituztela eta, Oñatiko Arrikruz, Astizko Mendukilo eta Karrantzako Pozalagua kobazuloekin anaitu egin dira. Elkarrekin ezagutzera eman eta jendea erakartzea da helburu nagusia eta horretarako *Mugarik gabeko lurpea* izeneko egitasmoari ekin diote.

Banaz bertze urtean 300.000 bisitari jasotzen dituzte sei leize horiek, eta abian paratu duten proiektu honekin bateko bisitariak bertzerara erakarri nahi dituzte, «*leize bat sustatzeko tokirik onena bertze leize bat delako*».

Ainhoa AGIRRE Zugarramurdiko Sorginen Museoko kudeatzailea



Zein da Mugarik gabeko lurpea ekimenaren helburua?

Produktu turistiko honetaz baliatuz bisitariak baliabide natural, ekologiko, historiko eta mitologiko hauek ezagutzera animatu nahi ditugu; hau da, gure leizera heldu direnen interesa piztu proiektuan parte hartzen duten gainontzeko kobak ere bisita ditzaten.

Kezka beretsuak dituzue leku diferenteetako leizeek?

Neurri haundi batean bai. Nahiz eta bakoitzak bere arazoak izan, denok dugu lurrazpiko munduaren babesarekiko kezka, eta turistei dago-kionez, gure bezeroek profil berdina izateaz gain, denok dakigu zer den gogor lan egi-

tea behe-denboraldia horren behea izan ez dadin.

Elkarri konpetentziarik ez, eta bakoitzaren leizea indartzeko biderik onena bertze leizeak direla diozue...

Batetik gero eta gehiago dira lurpeko erraietara barneratu nahi dutenak, seigarren kontinentea deitu dutenera, eta bertzalde, leize bakoitza bakarra da, ezberdina. Denek dute beren edertasuna eta xarma. Normalean bat ezagutu eta gustatuz gero, bertzeak ezagutzeko jakin-mina pizten da.

Euskal Herriko bertze leizeei egitasmoa zabaltzeko asmorik baduzue?

Produktu hau erakargarriagoa suertatuko da zenbat eta lei-

ze gehiagok parte hartu, horretan ez dugu zalantzarik. Momentuz sei gaude baina Isturitz eta Otsozelaiako kobekin ere harremanetan jarri gara eta badirudi interesa badutela. Atlantiar Pirineo eta Kornisa Kantabiarreko leize guztiek atek irekiak dituzte.

Etorkizunera begira, proiekturik baduzue buruan?

Taldea nolabait formalizatze-ko asmoa dugu elkarte bat sortuz edo hitzarmen bat sinatuz, antolakuntza oinarriak finkatzeko. Hemendik aitzinera pasaporte honen emaitzak aztertu beharko ditugu, ekimen berri bat martxan jarri baino lehen, eta aurreikusia dugu promozio kontuetan lanean segitzea gure web orrien arteko loturak eginez edota, aurrekontuaren arabera, web orrialde propioa sortuz.

«Nahiz eta leize bakoitzak bere arazoak izan, neurri batean denok kezka beretsuak ditugu»

Hori nabarmendu zuten hilaren 9ko aurkezpenean leizeetako ordezkariak. «Leizeen artean ez dago konpetentziarik, elkar lagundu egiten dute, haietako bakoitza bakarra baita».

«Egitasmo turistikoa» deitu duten ekimena lantzeko joan den urteko urtarrilean bildu ziren lehenbiziko aldiz. Saio honek izanen dituen emaitzak aztertu aitzinetik, etorkizunera begira, egitasmoa euren antzeko ezagarrak dituzten bertze leizetara zabaltzeko asmoa dute. Dagoeneko Isturitz eta Otsozelaiako kobazuloek ere interesa agertu omen dute egitasmoan parte hartzeko. «Argi dago eskaintza hedatzeak norbere produktua indartu eta erakartzen duela», adierazi digu Ainhoa Agirre Zugarramurdiko Sorginen Museoko kudeatzaileak. Horrez gain, leize bakoitzaren web orrian bertze leizeen webgunetarako loturak ere paratu nahi dituzte, eta baliteke, aurrekontuaren arabera, web orri propioa ere sortzea.

«Paisaiaren edertasuna ez dago lurraren gainean soilik, bihotz bihotzean ere xarma haundiko bazter naturalak daude». Hortik dator Seigarren Kontinentea izena. «Lurraren erdigunera barneratu, eta balio ekologiko zein natural haundiko lekuak, gizakiaren iraganaren arrastoak, mitoi loturiko erritu herrikoiak, paisaiaren edertasuna, historia ezagutu eta entzun». Hori guztia aurkituko dute bisitariak leizeetan.

PASAPORTEAREN ABANTAILAK



ARTXIBOA

Urdazubiko leizeak.

Deskontuak eta opariak pasaportearekin

Sarrera erostean, bisitariak liburuxka edo pasaportea jasoko du doan. Pasaporteari zigilua paratuko zaio eta promozioaren barne dauden bertze leizeetan erabili ahal izanen du. Sei leizeen ibilbidea egin ahala, zigiluak gehitzen joanen zaizkio liburuxkari. Gainera, liburuxka eskuartean, bertze leizeetara joaten den bakoitzak %20ko deskontua izanen du sarreran. Ekainaren 30a

baino lehen sei kobazuloetatik pasaportea zigiluekin pasaportea osatzen duenak oparia jasoko du: Anaiartutako Leizeen irudirik ikusgarrienak biltzen dituen CDa. Dena den, pasaportea behe-denboraldirako bakarrik izanen da erabilgarria. Beraz, Aste Santuan, uztailean, abuztuan eta zubietan ez. 40.000 ale argitaratu dituzte, eta erantzun ona izatea espero dute arduradunek.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Udalean bazterrak nahasten dituen UPNko taldearendako

Ba al dakizue egi-erdiak gezurrak direla? 3 urteko ikasleek ikasten duten lehen balorea da.

Nola ausartzen zarete nire etxearen kontuak argitaratzen, nahi duzuen gisara eta gainera nire izena agertu gabe, alkatereana bakarrik balitz bezala?

Zuekin solasteko hitzordua eskatu nizuen eta ezezkua eman zenidaten, zuen kontua ez zela erranez, R. Zaldua eta gure familiaren artekoa zelakoan, baina orain, ausartu egin zarete, boletinarenean medioz eta baztandar guztien aurrean, trapu zikinak eta «egi-erdiak» zabalitzen, eskrupulorik gabe, nire ahizparen dimisioa eskatuz.

Zuek nire ahizpardi duintasunik ez duela diozue? Nire ustez eta ni bezala bertze hainbaten ustez (UPNko botoemaile batzuk barne), zuek ez duzue duintasunik, lotsik eta ohorerik.

Jakin dezazuela, zuen botoemaile aunitzek, pertsonalki etxerat deitu digutela, barkamena eskatuz eta diozuen lotsa-gabekeria hutsa dela erranez, pena haundia ematen diela horrelako lanetan zuek denbora galtzea, askoz ere hobe dela lan-konstruktiboa egitea.

Ez dakit nor den zuen aholkularia, baina bide hortatik ez duzue botorik lortuko, jendea ez dago ados erabiltzen duzuen

estrategia-politiko honekin; Baztanen ez du funtzionatzen, herri bat delako, denak ezagutzen garelako.

Bertzerik gabe,

Miren
Aleman Arrastio

Prekaritateari aurre eginez emakumeek gure eskubideen alde borrokan!

Edonolako jendarte ereduren zutabe nagusia sistema ekonomiko eta soziala izanik, emakumeon askatasunari bide emango dion Euskal Herria sortu nahi badugu, sexu bereizkerian oinarritutako ereduak errotik aldatu behar dira.

Euskal Herriko Bilgune Feministak emakumeon bizi baldintzak eraldatzeko eta duintasun sozio-ekonomikorako beharrezkoak ditugun duintasunerako oinarriak identifikatu eta zehaztu nahi ditu. Horretarako duintasunerako premisak izeneko lana definitu dugu. Jarraian honen laburpena.

Lanerako eskubidea eta emakumeek ekonomia-aren subjektuak kontsideratuak izateko eskubidea.

1-Lana kontzeptuaren kontestualizazio berria. Ikuspegi feministatik lan kontzeptuaren testuinguru berria eman beharra dugu.

2-Nazio mailako kontabilitate kontu guzietan

etxeko lanak barneratzea.

3-Lan ororen eskubide sozialen aitortza eta seguritate sozialaren erregimen berezien desagerpena (etxeko lanen errekonozimendu sozial nahiz ekonomikoa, ekonomia murgilduaren argitzea..)

4-Osasuna genero perspektiba barneratua duelarik.

5-Lan merkatuan emakumeon parte-hartzea aukera berdintasunean.

Diru-sarrera minimoak izateko eskubidea

Emakume orori beharrezkoak dituen prestazio ekonomiko eta gizarte laguntzak bermatu behar zaizkio.

Etxebizitza eskubidea

Etxebizitza eskubide bat da, beraz, merkatuaren logikatik eta espekulaziotik kanpo geratu behar du. Egungo etxebizitza politika errotik aldatu behar da, alokairu sozialaren aldeko apostu eginenez, etxebizitza hutsak izatearen luxua gaindituz, lurzorua kudeaketa soziala bilakatuz eta okupazioaren aukera eta zifilegitasuna landuz.

Eskubide sozialak

Oinarritzko premisa sozialak eskuratu behar ditugu eraldaketa soziala garaitu nahi badugu. Besteak beste, zerbitzu sozialaren euskal sistema publikoa, 0 urtetik aurrerako hezkuntza integrala, osasungintza integrala edota pertsona ororen zainketa integrala ziurtatzeko mekanismoak ezartzea.

Jaione Irisarri
Euskal Herriko
Bilgune Feminista

Kiskalita nauka euskal zinemak

Un poco de chocolate filmari buruz ari naiz. Ematen du hemen beti dagoela aitzakiaren bat euskara hizkuntza eta euskaradunak bigarren mailan uzteko. SP-rako tranbia eleberria euskaraz izan zen idatzia, eta sari garrantzitsu bat jaso zuen horren ondorioz. Lehenago beste horrenbeste gertatu zen Bernardo Atxagaren Obabakoak liburuarekin. Kasu hartan ere eleberria zinemara eraman zen. Orduko hartan pelikula gaztelaniaz filmatu zen, zuzendaria eta aktore nagusiak erdaldunak zirela argudiatuz. Hala eta guztiz ere, okerez banago, ikusleari hasieratik aukera eman zitzaion hautatzeko zein hizkuntzatan ikusi nahi zuen, gaztelaniaz ala euskaraz, Hego Euskal Herrian, behintzat. Iparraldean ez dakit oso ongi zer gertatu zen.

Oraingo kasuan, ordea, liburu euskaraduna edukitzeaz gain, zuzendaria eta aktore asko, baita protagonista nagusietariko batzuk ere, euskaldunak izan ditugu, baina, hala ere, orain ere izan omen da arrazoi edo aitzakiaren bat gaztelaniaz filmatzeko. Gaztelaniaz bakarrik, momentuz, bederen. Euskaraz ikusi nahi dugunok itxaron behar dugu «gure bigarren txanda», askotan bezalaxe.

Bitartean, jende asko sumatzen dut kezkatuta eztabaidatzen, filmak ongi islatzen ote duen ele-

berriaren edukia. Nik aitortzen dut hori garrantzitsua dela, baina, nire iritziz, euskaraz filmatua izateak hasieratik eta euskaltzaleei ere aukera berbera emateak, itzulpenik egin gabe, alegia, uste dut ez duela garrantzi gutxiago.

Bukatzeke, zer esanzen dut, ba, nik? Beste askotan bezalaxe, oraingo honetan ere gelditu beharko dugula zain, ea noiz ematen diguten aukera film hau euskaraz ikusi ahal izateko. Baina inor gutxi esanen dit, norberaren etxean bigarren edo hirugarren mailakoa sentitzea, benetan ez dela gauza tristea.

Xanti Begiristain
Iruñea

Legutioko atentuen harira NaBairen oharra

Behan idazki hau izen-

petzen dugunok, Nafarroako hainbat eskualdeko Naibaizaleok - Nafarroa Bairen aldeko independente taldeetako kideok, ETAK Legution egindako atentatu kriminala salatzeke Uxue Barkos gure diputatuak, gainerako Diputatuen Kongresuko talde politikoekin batera sinatutako akordioa bere osotasunean harpidetzen dugu.

Koldo Martínez; Goio Monreal; Juanjo Dominguez; Jabier Zubiri; Iñigo Monreal; Estebe Petrizan; Patxi Leuza; Goio Urdaniz; Eurne Egin; Antton Urra; Jose Luis Mendoza; Eduardo Lakasta; Iñaki Akerreta; Aingeru Epalza; Pedro Arrese; Jose Ignacio Lacasta; Melba Luz Lacalle; Juan Carlos Goienezte; Ibon Mimentza.

• 11 GALDERA LABUR •

Zergatik sartu zinen Akelarre Elkarteko Batzordean?

Elkarte guztia aldatzekoa zen eta boletarioak eskatu zituztelako.

Zer suposatzen du elkarte bateko kidea izateak?

Alde batetik lana eta ardura; bertze aldetik kexak aditzeko prest behar duzula; baina orokorrean satisfazioa da, herriarendako gauzak egiteko aukera duzulako.

Zergatik utzi zitzaion ekaineko gausa antolatzeari?

Sobera jende etortzen zen eta ezin genituen behar den bezala atentatu. Gainera bestaren xarma galdua zen, eta herri bilkura batean moztea erabaki zen.

Akelarre Elkarte eta bestak...

Duela 15 bat urte arte gazteek antolatzen zituzten bestak, geroztik Akelarre Elkarteak bere gain hartua du lan hori.

Akelarre Elkarte eta Akelarre antzerkia...

Gau pasatik berreskuratu dugun gauza pulit bat da, eta Akelarreak egitan zer ziren erakusteko aukera bat.

Akelarre Elkarte eta Sorgin eguna...

Ilusionez prestatzen ari garen zerbait berria da, ea ongi ateratzen zaigun.

Museoa edo leizea?

Biak bere modura: museora gan, begiak ireki eta

gure historia ezagutzeko; ondotik leizera gan, begiak etsi eta gure historia sentitzeko.

Gaua edo eguna?

Orain eguna. Bizi honetan momentu desberdinak bizitzen dira, bakoitza bere momentuan.

Zikiroa edo txuletona?

Zikiroa, baina leizean

Mendiz ibiltzen hasia zara. Orain zer duzu nahiago: Marixaneko terraza edo Atxuriako kaskoa?

Jo, bakoitza bere momentuan, leku guztietan bere xarma bada.

Eta finitzeke: zein berri gustatuko litzazuke agertzea hurrengo Ttipi-Ttapan?

Baztango Udalakin dagoen afera kontontzea, eta horren ondorioz gure lurrak guretakoa galditzea...



Marifa IRAZOKI

Zugarramurdiko Akelarre Elkarteko lehendakaria

TOLDOS BAZTAN, S.L.

TOLDOAK: salmenta-korponketa, alokairua, errotulazio
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-veneziarak
PVCzko LEJHO eta ITXITURAK

TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
Teleturako, egurrak tapatzeko...
Neurriak: 10x10 m - 10x14m - 8x7m - 5x6-7m

Bidasoa, 66 beheko - BERA - Tfnak eta Faka: 948 631003

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

BOBEKO

FRAN AIZUA - LESAKA
Tfnak: 948 637 805

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

YOAN

Plantxak pasatzeaz ahaztuko zara gure behin betiko leuntasunarekin

- Deitu eta informatuko dizugu
- System Profesional eta Sebastian produktua

DEITU ORDUA ESKATZEKO

Bidasoa, 8 - 31190 BERA
☎ 948 63 01 77

BERTSOLARITZA

Julen Zelaietak irabazi du Baztan-Bidasoako XXI. bertsopaper lehiaketako saria nagusia

Bertzalde, Nafarroako eskolarteko bertsopaper lehiaketan ere eskualdeko sarituak izan dira

ttipi-ttapa

Aurkeztutako 40 bat lanen artean, epaimahaiak erabaki ditu dagoeneko Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketako saridunak zein diren. Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin antolatzen duten lehiaketaren XXI. edizioa izan da aurtengoa eta maiatzaren 16an banatu ziren sariak Berako Kultur Etxean. Adinaren arabera, maila ezberdinetako sariak banatu ziren.

A mailan (12 urte artekoentzat), lehenbiziko saria Maddalen Lopez Tapia lesakarrarentzat izan da, *San Fermínak* izeneko lanagatik. Bigarren saria ere Lesakara joan da, eta *Mundua hain kutsatua* lanagatik Gorka Sanjurjo jaso du saria. Horrez gain, bertze bi aipamen ere banatu dira mailan honetan: Berako Oihana Elzaurdiak *Aste txuria* izeneko lanagatik jaso du bat, eta Manex Zapiain beratarrek bertzea, *Baserría* izeneko bertsotengatik.

B mailan (12-16 urte), lehen saria Baztanera joan da eta Oronozko Amaia Elizagoienentzat izan da, *Erabakia hartu duzula* lanagatik. Bigarren eta hirugarren sariak, aldiz, Lesakara joan dira: Patrizia Etxegarainen *Kanta guztiak*



ARGAZKIAK: ESTITXU AROTZENA ETA GONTZAL AGOTE

Goiko argazkian Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketako saridunak ageri dira, sari banaketa egunean. Behekoa, berriz, Hezkuntza Departamentuak antolatutako Bortzirietako bertsopaper lehiaketan ateratakoa da.

berdinak dira lanak jaso du bigarrena, eta *Ttikitatik lagunak, orain zer?* Ainara Etxabiderenak hirugarrena.

C mailan (16-18 urte) guztien artean Sunbillako Irati Arrietaren *Nire egun hoberena* izan da lehen hautatua; loar Tainta lesakarraren *Txarren txarrenean* ere bigarrena, eta *Bizi alrebesa* hirugarrena. Az-

ken hau Josu Sanjurjo lesakarrarena da.

D mailan (18 urtetik goiti), Julen Zelaieta beratarrek jaso du sari nagusia, *Cold'l'bardin? Oh lala!* lanagatik. Bigarren eta hirugarren postuak, berriz, Irunera joan dira, eta Gotzon Aizpiolearen *Astea hastean* eta Manu Goienagaren *Bestarik besta* izan dira aukeratuak, hurrenez hurren.

NAFARROAKO LEHIAKETA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Bertsozale Elkartearen laguntzaz antolatutako eskolarteko bertsopaper lehiaketako sariak ere berriki banatu dira. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Nafarroa oso-ko 1.000 ikasletik goitik

parte hartu dute, eta horien artean aunitz eskualdera etorri dira.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako lehen saria Leitzako Erleta Ikastetxeko Joanes Ilarregirentzat izan da; bigarren saria Baztan Ikastolako Aintzane Ariztegiarentzat; eta hirugarrena Lesakako Tantarumairu Ikastolako Benat Conderentzat.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako lehen saria, berriz, Berako Ricardo Baroja eskolara joan da, eta Ainhoa Larretxeak jaso du. Maila honetan eskualdeko bertze saria hirugarrena izan da. Azken hau Leitzako Erleta ikastetxeko Iraitz Astibia- rentzat izan da.

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan, hirugarren saria baino ez da ailegatu eta hori Berako Labiaga Ikastolako Miren Etxepetelekurentzat izan da.

Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako sariei dagokionez, lehenbiziko biak Doneztebeko Mendaur ikastetxera etorri dira: Irati Arrietarentzat lehena eta Maialen Belarrentzat bigarrena.

Aipatzekoa da, Nafarroa mailako sarituok nobre eskualdeko bertsopaper lehiaketako txapelidunak direla. Eskualdez eskualde ere lehenbiziko sariak eta aipamenak banatzen baitira.

BERA

Berako Oihua aldizkarian lanak aurkezteko epea zabalik dago

Ekainaren 13a bitarte aurkeztu ahal izanen dira

ttipi-ttapa

Aurtengo Sanesteban bestak oraindik urrutiki usi arren, aitzineko urteetan bezala, besten programarekin batera kale-ratuko den Berako Oihua aldizkaria prestatzen hasiak dira. Aldizkarirako artikuluak egiteko deia luzatu du Udalak, gaia eta luzera edozein dela ere. Testuak irudi edo argazki lagunduak joaten ahal dira. Lanak aurkezteko epea ekainaren 13an bukatuko da eta bi bide daude horretarako: batetik, posta elektronikoz kultura@berakoudala.net helbidera bidali, edo bertzela, zuzenean Kultur Etxera eraman. Lanak formatu digitalean nahiago dituztela adierazi dute antolatzaileek.

Aspaceren ordezkari

Maiatzaren 23an inauguratu zen Aspacek Bortzirietan izanen duen ordezkari. 30 urte daramatza Aspacek eskualdean lanean eta tar-te horretan hainbat zen-tro sortu ditu ezintasuna duten pertsonen behar-rak asetzeko: Uxane okupazio zentroa, Otsango lan zentro berezia eta Maddi egotetxea. Bera eta Lesakako kaleen gar-

biketaz ere arduratzen dira eta Berako lorategien mantenua ere egiten dute. Haur zein helduentzako aisialdi zerbitzua ere eskaintzen du Aspacek. Hainbat fundazio-tan ibili da lanean urteotan Aspace, eta egin-

dako lana formalizatzeko erabaki dute orain ordezkari-tza zabaltzea.


Memoria Historikoari buruz solasean

Espidobaita Elkarteak eta Kultur Batzor-

deak antolatuta, *Memoria Historikoa berreskuratze*ko ahalegi-nak gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du Iñaki Egañak ekainaren 5ean. 19:30ean hasiko da solasaldia Liburutegian.

Musika entzunaldiak

Udako kontzertuaren atarian, Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatuta hainbat entzunaldi eginen dira ekaineko lehen egunetan. Ekainaren 3an, akordeoi eta trikitixa entzunaldia eskainiko dute ikasleek Musika Eskolan, 17:30etik aitzinera. Biharamunean, ekainak 4, txistu, perkusio eta tronpetaren txanda izanen da. Emanaldia 17:00etan hasiko da. Perkusioak eta teklatuak jotzen dituztenek ekainaren 5ean eskainiko dute saioa, 17:30ean. Azkenik, ekainaren 11n, udako kontzertua eskainiko dute ikasle guztiek, 17:30ean hasita Kultur Etxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Dunia Abatal garaile Euskal Herriko piro-piropo lehiaketan

«*Maparik ba al daukazu? Zure begiradan galdu bainaiz!*». Horixe izan da Euskal Herriko Piro-piropo lehiaketako lehen saria Berara ekarri duen piro-piropa, Labiaga ikastolako Dunia Abatal Altzugurenek egindakoa, hain zuzen. Hala, beretzat izanen da zortzi lagunentzako egonaldia Plentziako aterpetxean (Bizkaia). Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako piro-piropo lehiaketan ere saria lortu zuen aipatu piro-piropa, bigarrena. Bortzirietako lehiaketan, beretzat izan da Lesakako Bixkiak jantzidendak eskainiako 100 euroko balea. Lehenbiziko saria, berriz, Berako Katea Biken eskainitako bizikleta Toki-Ona Institutuko Ruben Pedrosa Medinak eskuratu du, «*zu munduarentzat pertsona bat zara bakarrik, baina pertsona batentzat mundua zara*» piro-piropa-erengatik. Hirugarrena ere Rubentzat izan da, «*zure irrifarra nahikoa da gaueko iluna argitzeko*» piro-piropa hautatu baitu Bortzirietako epaimahaiak. Berako Igone liburudendak eskainiko 50 euroko balea eskuratu du. Argazkian, ezkerrean, Dunia Abatal ageri da Lesakako Bixkiak arropadendan, eta eskuinaldekoan, berriz, Ruben Pedrosa, Berako Katea Biken.

San Migel zubi ondoko etxeko teilatua beheiti

Herriko suhiltzaileek, Oronoz-Mugairikoen laguntzarekin, San Migel zubiaren ondoan dagoen etxeko hondakinak atera behar izan zituzten maiatzaren 19ko arratsaldean. Hutsik dagoen eraikinaren teilatuaren zati bat behera erori zen eta materiala karrikan barrena banatua gelditu zen.

carroba
gaitzaga skinlogia
C/ de Estigarribia 25 baxo 48700 BERRIOARTE
948 63 08 99
www.carrobe.net

Xirgill
Alm. 1 - BERA
Tfn: 948 631 402

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alm. 5 - Tel: 948 630 053

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA



ARGAZKIA: AITOR A.

120 musikari bildu zituen Musika Banden Alardeak

Herriko Bandarekin batera, Garinoain eta Araiako musika bandek parte hartu zuten maiatzaren 17ko alardean. Martxel Rodriguezek dantzatutako aurrekuraren ondotik, banda bakoitza bere aldetik karriz karriz ibili zen. Ibilaldiaren ondotik, plazan bildu eta kontzertua eskaini zuten. Herriko musika bandakoek Iraia Etxabide taldekideari eskaini nahi izan zioten emanaldia, berriki aita, Juan Tomas Etxabide, galdu baitzuen. Plazako kontzertua akautzeko, banda guziek batera Pepito Yanciren *Lesaka* jo zuten, Mikel Iriarteren zuzendaritzapean.

FLASH

Polizi-okupazioa salatu du Askatasunak

Askatasunak salatu duenez, «izugarria» da herrian ematen ari den okupazio poliziala. Ugarriak dira Guardia Zibila herrian egiten dituen inkurtsioak, baita herri sarreteran jarri ohi dituen kontrolak ere. Maiatzaren 16an egin zuten azken indar erakustaldia. 11:00ak aldera Guardia Zibilaren lau patrol sartu ziren eta Arrano elkartearen inguruan ibili ziren metrailetak eskuetan zituztela. Karrikan zihoan gazte bat identifikatu eta galdera pila egin zizkioten. Birtartean karriz moztuta izan zuten, inor pasa ez zedin. 45 minutu inguru egon ziren ia Arranoko atean eta tarte horretan inguruan zebiltzan bertze hiru pertsona ere identifikatu zituzten.

Iñaki Larralde 2. mailako finalean

Iñaki Larralde herriko pilotariak bigarren mailako buruz buruko finala jokatu du heldu den ekainaren 7an Amorebietako frontoian Julen Retegiren kontra.

Lesakako argazkien erakusketa

Martin Sarobe Pueyo argazkilararen Lesakako argazkiak ikusgai izanen dira ekainaren 1etik 13ra Beti Gazte elkartearen. 17:00etatik 20:00etara ikusgai izanen den erakusketa hau Udalak antolatu du.

Landazelaietako etxebizitzetarako proposamena aurkeztu du Oninek

Ezker abertzaleak 234 sinadura bildu ditu batzar informatiboa eskatuz

Aitor AROTZENA

Landazelaietan tramitatu den hirigintza hitzarmenaren inguruan herriko talde ezberdinen iritzia karrikaritzen ari dira azken hilabeteetan. Joan den ortziralean ez ohiko batzarra egitekoa zuten Udalak, hirigintza hitzarmenaren onarpena eztabaidatzeko.

Maiatzaren 16an, Onin Udal Taldeak jendaurrean egindako aurkezpenean aipatu zuten, plenoan gai ordenean hitzarmenaren onarpena ez sartzeko eta aste pare batez gibelera-


tzea eskatu zuten. Onin Udal Taldea prestatzen ari den planteamendua berrituz bertze udal taldeei aurkeztu nahi die, denon artean eztabaidatzeko.

Oninen agerraldiak herritarren interesa piztu zuten, Kasinoa jendez gainezka baitzegoen. Horietaik aunitz merkataria ziren. Izan ere, Udalak esku artean duen azken proiektuaren arabera, 340 etxebizitza ez ezik, 3.000 metro koadroko merkataritza zentroa aurikusia dago eta azken honek, nola ez, kezka sortu du herriko

dendariaren artean. Proiektu hau ez da Onin taldearen gustukoa. Sortzen den eraikitako masa trinkoegia iruditzen zaio eta espazio irekiak desagertu direla dio. Hori dela eta Udalak antolamendua berrituz exijitu beharko lukeela uste du Oninek, inguruarekin atsegina eta integratua izateko. Horrez gain, etxebizitza pribatuak eta babes ofizialekoak elkarrekin nahastu behar direla dio Oninek, oreka soziala bilatzeko. Denak eta ostatuak kontzentratu beharrean,

etxebizitzaren azpian banatzea hobe dela uste du Oninek.

Bertzalde, ezker abertzaleak bultzatuta, gai honi buruzko informazioa emateko udal batzarra eskatuz sinadura bilketa egin da. Edurne Recondok eta Iban Maiak aipatu digutenez, 234 sinadura bildu dituzte eta maiatzaren 16an aurkeztu zituzten Herriko Etxean. Gai honi buruz lesakarren iritzia kontuan hartzea eta oraindik gauzak ongi egiteko tenorez gaudela ere aipatu zuten.



ETXALAR

Igande honetan egingen da XVI. Gasna eta Artisauen Feria

Antolatzailleek «espero ez den sorpresa bat» iragarri dute

Joseba eta Nerea

Igande honetan, ekainak 1, egingen da aurtengo Gasna eta Artisau Feria Eguna. Goizean goizetik, eskulangileen postuak, ekitaldi desberdinak eta besta giroa ez dira faltako. Eguerdira bitartean haurrentzako sormen-tailerrak izanen dira plazan, azken urtetan bezala. 10:30etik aitzinera artisauen erakusketa paratuko dute plazan, egurra, burdina, kristala eta bertzelakolana egiten dituzten eskulangileekin. 12:30ean herriko trikitilarien saioa izanen da plazan. 13:30ean gasna lehiaketako sari-banaketa egingen da eta segidan, herri bazkaria frontoian. Lehiaketara gasna aurkeztu nahi dutenek 11:00ak baino lehen egin beharko dute frontoian. Arratsaldean, Andre Mari Dantza Taldekoen saioa izanen da, aurten nobedade bezala, taldeko nagusien eskutik. Altxata Kultur Elkartetik aitzineratu digutenez, «aurten sorpresa

handi bat izanen da goiz partean, baina bertan egon beharko da zer den ikusteko». Jendeak espero ez duen zerbait izanen dela erran digute.

Hitzaldiak

Ekainaren 4an, asteazkena, Gorka Gorospe Orgi elkarteko kudeatzaileak mendiaren inguruko hitzaldia emanen du Kultur Etxean, 19:00etan. Ekainaren 7an, berriz, larunbata, Etxalarko txorien inguruan solastuko da Mikel Etxaniz, Itsas-enara Ornitologia Elkarteko kidea. 10:00etan izanen da hitzaldia Kultur Etxean. Ondotik, ateraldia egingen da Bagoleko Borda aldera, teoriarik ikasitakoa praktikan ikustera.

2007ko udaleko kontuak

Maiatzaren 9ko udalbatzan 2007ko kontuen hasierako onespina onartu zen. 2007an egingandako gastuak 1.210.300 eurokoak izan ziren. Gastu nagusien artean es-



ARTXIBOA

Gasna Feria Egunean, aurten ere euren saioa eskainiko dute herriko trikitilari eta panderojoleek.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLAKOAK UTZITAKOA

Landagaineko kanpaldiak

Joan diren bi asteetan kanpaldietan egon ziren Landagain Eskolako haurrak. Lehen ziklokoak maiatzaren 12tik 13ra joan ziren Hondarriribira, eta 2. ziklokoak 21etik 23ra. Eskurtsioak, hondartzan egun pasa, itsasontzian bueltak... Argazkian ageri den gisan, aspertzeko astirik ez zuten izan.

kolako handitze lanak eta uholdeak eragindako kalteak moldatzea daude. Sarrerak 1.138.400 eurokoak izan dira. Hortaz, gastuak sarrerak baino gehiago izan dira, 71.900

euroko aldearekin. Kontuak Herri Taldearen aldeko 4 botoekin onartu ziren. EAK kontuak onartzearen kontra botatu zuen, orain arte kontuen berri ez baitute izan.

Jaunartzea

Maiatzaren 25ean hiru lagunek egin zuten Jaunartzea; Arburuko Markel Iturriak, Matiseneko Andoni Iribarrenek eta Mikelestoneko Iker Bizentek.

LEGARRA
ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA
 Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

USOA
 nekazari kooperatiba
 ganaduarentzat
 pentsurik egokiena
 Tel: 948 635 214 - ETZALAR

Javier Manterola
 Tekniko instalatzailea
 iturgintza • gasa
 kalifikazioa
 Tfnoa: 629449602-BERA

oreka
 nutrizioa eta dietetika
 sandra legasa rosa
 dietetika eta nutrizioan diplomadua

- Sendabelarrak, elikadura, produktu ekologikoak, kosmetika naturala...
- Dietista-nutrizionista kontsulta
- Terapia naturalak: Reiki, Reflexologia, masajeak...

OREKA - arretxea 7 - 31770 Lesaka
T 948 63 73 73
 orekanutritioa@oholmail.com

ARANTZA

Sekula baino mendizale gehiago izan da Mendi Itzulian

501 mendizalek parte hartu zuten Arantzako zirkuaren ibilaldian

Nerea ALTZURI

Kontent daude antolatzailak. Maiatzaren 18an egindako Mendi Itzulian aurrikuspenak bete ziren. Bete baino gehiago gainera! Aurten goa laugarren aldia izanik, azken hiru edizioetan baino mendizale gehiago bildu ziren hitzordura. Oraingoan, gainera, eguzki printzak batu ziren eta lainoan egin beharrean itzulia, eguraldi garbia zegoen paisaia hobeto estimatzeko.

Aurtengo Mendi Ibilaldian 501 lagunek gozatu zuten Arantzako mendi zirkuarekin. Gainera, Ternida eguna izaki, aunitzek Mendaurreko kaxkora igotzeko hautua egin zuten (aukerakoa izaten da hau beti). Mendi gainetan, beraz, bazen mugimendua eta bazkal aitzinetik ere, herriko plazan prestatutako hamaketakoa gustura hartu zuten mendian ibilitakoek.

Hainbat astetan guzia lotzen aritu da Ekaitza Elkarteak Mendiko Batzordea. Baina astebu-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI

Mendizaleak ibilbidea bukatu eta plazara ailegatu, eta ondoko mokadutxoan jaten.

ru horretan 30 inguru herritar lanean aritu ziren guzia borobil ateratzeko. Bezperan, plaza gunea antolatzen eta mendiko ibilbidea markatzen; eta egun berean izenak hartzen, kontrol puntuetan jan edariak eta bertzelako zerbitzuak eskaintzen, plazan eta ostatuetan gosaria prestatzen, oroigarriak banatzen... Eta guzia biltzen! Herritar eta entitate aunitzek lagun-

du dute eta hori eskertu nahi du antolakuntzak lez hauen bidez.

Gisa berean, ibilaldia egin duten herritar nahiz herritar ez direnak hemendik bi urtera itzultzeko gonbidapena egingen dugu. Seguru hurrengo ediziorako gogo eta ilusio faltarik ez dagoela! Hurrengoaren esperoan geratzen gara eta gure aldetik, txoko honetan iragartzeko irrikaz gau-

de. Zorionak lanean aritu zareten denei!

Asier txapeldun!

Conor Saltokiko txirrindularia den Asier Apeztegia berriz ere zoriondu beharrean gaude. Maiatzaren 18an Bearrinen egindako mendi bizikleta txapelketan garaile izan zen. 35 kilometro lasterkaldia irabazi zuen eta elite mailako sailkapenean liderra da.

FLASH

Ehiztarien bilerak

Urruti dela ematen badu ere, ehiztariarentzat behintzat aski hurbil dago urria. Udazkenean, ehiztariak beuren zaletasunarekin asetzen dira eta horretarako prestaketa lanak ere abiatu ditu Usua Ehiztarien Kirol Elkarteak. Joan den larunbatean, batzar nagusi arrunta egitekoa zen Burlada jatetxean. Iazko akta eta kontuak; aurtengo kuota; Azkilarreko pistaren hormigoitze gastuan parte-hartzea; ehiza antolamendu plana berritzea; basurde eta orkatz ehizaren eguneratzea; eta puestoen garbiketaren araudiaren aldaketa izan zituzten, berteak berte, solasteko. Bertalde, larunbat honetan, hilaren 31n, Bagatxar eta Ekaitzako ehiztarien bilerak egingen dira. Ekaitzako bilkurak 16:30ean du lehenengo deialdia, eta ordu erdi beranduko bigarrena. Bagatxar-ko ehiztariarentzako, berriz, lehenbiziko deialdia 19:30erako egina da eta bigarrena 20:00erako. Azkenik, erran, ehiztariari banatu zaien gutunean adierazten denez, kuoten ordainketak Nafarroako Kutxan dauden kontu korronteetan bakkari egingen direla. Ehiztariak, beraz, jakinaren gainean izanen dira.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Ituzia
HIDRODERMOLÓGICA

HIDRODERMOLÓGICA
HIDROSEBREA

FERRAN BILAZTEGAREN
LARRALDEA

intzuri
OPTIKA

Nerea Alberto Pérez
OPTIKO-OPTOMETRISTA

AUKERA ZABALA
EGUZKITAKO
BETALIFURREKOETAN

Bide 36 • LESAKA
T. 948 627550

IGANTZI

Berrizaunen abiadura murrizteko neurriak hartzeko proposatu dio EAK Udalarari

Arantzarako bidegurutzean eta Bentatako zubian ispilua paratzea ere aholkatu du

ttipi-ttapa

Igantzioko Eusko Alkartasunak Igantzioko Bentatan, Berrizaunen, bi abiadura murriztaile jartzeko proposamena luzatu dio Udalarari, «leku horretan autoen joan-etorriekin sortzen den arriskua dela eta». Zehazki, hauetariko bat «geltoki zaharraren parean jartzea» proposatu du, eta bertzea «fabrikaren parean», Igantzioko EAren ustez «tokirik aproposenak baitira».

Honekin batera, Arantzarako bidean dagoen bidegurutzean eta Igantzioko Bentatako zubian ispilu bana jartzea ere komenigarria dela iritzi dio EAK, «sortzen

den arriskua saihesteko».

Herriko txirrindulariak

Maiatzaren 18an jokatu zen Iruña Bike Maratoia eta Ciclos Iñaki taldean ari den Joxe Mari Goia herritarra izan zen helmugaratzen lehena. Ez zen konpetizioa, baina 616 parte-hartzailearen artean lehenbizikoa ailegatu zen, 69 kilometroko ibilbide luzea egin ondotik. Egun berean jokatu zen Bearingo mountain bike lasterketaren bortzgarren edizioa ere eta Aitor Begino herritarra lan txukuna egin zuen. Kadeteetan bigarren sailka-



ARGAZKIA: BEÑAT TXOPERENA

Gazteen apostu ikusgarria

Joan den urte hasieran apostu ikusgarri baten protagonista izan ziren Patxi Irazoki eta Xebastian Antxordoki igantziarrak. Lesakako Bereautik abiatu eta Piedadeko gainera arte karrera egin zuten, Patxik lasterka eta Xebastianek bizikletaz. Honek zelaian ateratako abantaila deusean utzi zuen Patxik Piedadera igotzen eta irabazle izan zen korrikalaria. Bada, apostu kontuei segida eman diote berriki, maiatzaren 17an, bertze bat egin baitzuten. Oraingoan ere Patxi Irazoki eta Xebastian Antxordoki izan ziren protagonistak alde batetik eta bertze aldetik, antolatzaileek erran bezala, «bortz kaskagor»: Gaxteluko Iñaki Bereau, Argatxeberriko Aitor Almandoz, Antxontxeberriko Josu Telletxea, Iñaki Portu eta Mendibilko Karlos Sein. Igantzioko frontoitik abiatu eta Apittuko kaxkoko etxe ttikira nor lehenago ailegatu zen kontua. Patxi Irazokik zati gehienez bakarka aritu behar izan zuen, nahiz eta garrantzitsuenak diren azken 25 metroan Agerreko Xebastian Antxordokiri utzi lekukoa. Bertze bortz protagonistek erreleboka egin zuten lasterketa guztia. Garaipena bortz lagunentzat izan zen, bi minutuko aldea atera baitzieten Patxiri eta Xebastian. Edonola ere, probak ez zuen ikusminik galdu azken momentura bitarte.

tu zen, irabazlearen-gandik hiru segundora baino ez. Horrez gain,

duela gutti Beñat Txoperena eta Begino Nafarroako Mendi Bizikle-

tako txapeldun izan ziren, junior eta kadete mailan, hurrenez hurren.

- edredoi
- azal nordikoak
- albornozak
- edredoi nordikoak
- ohe estalkiak
- maindireak
- mantelak
- kuxinak
- toallak

1951tik
Casa Cambra
lantzeria-etxea

2008ko udaberriko
kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

SUNBILLA

Eskola berriaren beharraz ohartarazi dio herriak Hezkuntza kontseilariari

Hezkuntza eta Ingurumen kontseilariak herrian izan dira

Jaione OTXANDORENA

Udalak egindako eskaerari erantzunez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilaria den Carlos Perez Nievas eta Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria herriko eskolak ikustera etorri ziren maiatzaren 20an. Gauregun Sunbillako eskolako haurrak bi eraikin desberdinetan banatuta daude eta eraikinak nahiko egoera kaxkarrean daudela ageria da. Gainera, datozen urteetarako ikasle kopuruak goiti eginen duela aurreikusi da, eta beraz, eskola berri baten premia dagoe-lakin arazi zieten bi kontseilariari. Herriko alkate Pako Errandonea, Hezkuntza zinegotzia Ainhoa Etxebeste, eskolako zuzendaria Marta Marizkurrena eta Eskola Kontseiluko Mikel Etxalar egon ziren beraiekin. Badirudi bisita ongi joan zela, eskolak ikusteaz gain,

eskola berria eraikitzeko lur eremu posibleak ere ikusten egon baitziren.

Udaberriko feria

Maiatzaren 9an Udaberriko Feria izan zen Donezteben, eta ahari lehaketan Sunbillako Juana Mari Migeltorena Pixar-neko bordako etxeoandreak eraman zuen lehen saria. Zorionak!

Omenaldiak

Ekainaren 4an Arkupeak Elkarteak besta eder baten bidez eskualdeko bazkideak omenduko ditu, tartean sunbildarrak. Urrezko Ezteiak Serapio Altzuri eta Justa Ibarrek egin dituzte; Diamantezko Ezteiak Modesto Gago eta Frantziska Agestak. 85 urte bete dituztenak Josefa Apeztegia, Antonio Etxeberria, Jose Mitxelena, Pascuala Lastiri eta Francisco Pascual dira. Zorionak eta ongi pasa!



Nafarroako Gobernuko kontseilariak udaletxeko eta eskolako ordezkariekin. ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES



UTZITAKO ARGAZKIA

87 urterekin Mendaurren kaxkoan

Ez du ez meritutik Arretxekobordako Modesto Gagok! 87 urterekin Trinitate Egunean Mendaurren kaxkoan igotzea lortu zuen eta nolako sasoiari gainera! Urtero joan ohi da egun horretan eta aitortu digunez urtean zehar ere bisita batzuk egingen dizkio ermitari. Garai batean, Trinitate Egunean biharamunean ere igotzen omen ziren Mendaurren. Bertzerik erratea ez zaigu gelditzen, jarrai dezala orain arte bezala, eta ea datorren urtean berriro ere kaxkoan ikusteko aukera dugun.

Gaztetxoak Irunberrira

Ekaineko lehen astean, eskolako 5. eta 6. mailako gaztetxoak Irunberrira joanen dira aste bat pasatzera. Ateraldiaren helburua ingelesa praktikatzeko da, beraz, egun

horietan irakasgai gutxiak ingelesez emanen dituzte.

Nafarroa guztiko 75 ikaslerekin elkartuko dira eta ziur ingelesa praktikatzeko gain, bertze gazteekin harreman ona izatea ere lortuko dutela.

Irati Arrieta saritua

Maiatzaren 16an Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketaren sariak banatu ziren eta herriko bertsolaria den Irati Arrietak Nire egun hobereana lanarekin bere mailako lehen saria lortu zuen.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

udana
salazones

LINE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SQC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest**

Akaiaga Ind. - Banata, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

t tipi t tapa



Ttipi-Ttapa
26000 irakurle

D. Navarra
15000 irakurle



Guaixe
12000 irakurle



D. Noticias
11000 irakurle



Gara
5000 irakurle



El Pais
2000



Marca
1000



Berria
1000



El Mundo
1000



Bertzeak
5000



IRAKURLE KOPURUA



SEXUAREN ARABERA

emakumeak %47,6
gizonak %52,4



ADINAREN ARABERA

21-25 urte %6,1 46-55 urte %9,2
26-35 urte %23,5 56-65 urte %15,8
36-45 urte %19,3 + 66 urte %26,1



IKASKETA MAILAREN ARABERA

ikasketarik gabe %5,0
lehen ikasketak %22,3
lanbide heziketa %18,4
batxilergoa %29,7
unibertsitatea %24,6



liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek Nafarroa Garaiko
mendialdean
hartu duen 111 udalerrien eremuan ere

DONEZTEBE

Larunbat honetan egingen da Errekaren Egunaren bigarren edizioa

Egun osoan kirol ekitaldiak, eta gauen herri afaria eta dantzaldia

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkarteak antolatuta, larunbat honetan, maiatzak 31, besta eguna izanen da. Denboraldi bukaerari behar bezalako akabera emateko, goiz goizetik kirol ekitaldiak prestatu dituzte.

Maiatzak 31, larunbata

8:00etan autobus geltokitik aterata, Askineko mendi irteera (Astin, Bostorratz, Sunbilla, Doneztebe).
10:00etan Errekako gazteen eskubaloi partidak.
12:00etan Errekako judo eskolako en erakustaldia.
16:00etan Errekako kadeteen eskubaloi partidak (neska-mutilak).
17:00etan Herriarteko Pilota Txapelketako kanporaketa: Erreka-Oberena.
18:30ean, Errekako eskubaloi talde nagusia Tid San Antonioren aurka.
21:00etan herri afaria. Ondotik, dantzaldia Jalisko Band taldearekin.

ELKARTEAREN BLOGA

Bertze ekimen bat ere paratu du martxan Elkarteak: Errekaren ekital-

dien berri eman, emaitza eta argazkiak bildu eta bertzelako informazioa jasotzen duen bloga, alegia. www.cde-rreka.blogspot.com da blog hori, eta euskaraz eta gazteleraz dago informazioa. Bertzeak bertze, Errekaren Eguneko ekitaldiez gain, pala txapelketako emaitzak ageri dira, eta berriki Noelia

Aritzia judokak Espainiako txapelketan lortu duen bigarren postuari ere aipamena egiten zaio.

Elkartetik argi utzi dute, ez dela Errekaren web orri ofiziala. Hala, argitaratzen denaren erantzulea ez omen da Elkartearen izanena. Informazioa jakintzeko helbide bat ere jakinarazi dute: erreka-elkartea@yahoo.es.

Auto triala larunbatean

Larunbat honetan, hilak 31, 4x4 autoen lehen triala ere egingen da Aparan industrialdean. 14:30ean hasiko da eta parte hartzeko 699 454-627 edo 618 778328ra deitu behar da. Pitti eskabazioak, Zoansa eta Arincar-Sampi Aragonen ekimena da.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Udaberriko Feriaren II. edizioa joan da

Udaberriko feriaren bigarren edizioa maiatzaren 9an egin zen, Udalak, Nafarroako Gobernuaren eta Cederna-Garalur Elkartearen laguntzaz antolatua. Iaz bezala, ahari lehiaketa egin zen, eta 20 buru aurkeztu ziren. Hori bai, mutur gorri eta beltzei irekitako lehiaketa izan arren, gorriak bakarrik aurkeztu ziren, iaz bezala. 120 euroko lehenbiziko saria Sunbillako Pixarneko borka Jose Bernardo Bazterrikaren ahariak jaso zuen; 70 euroko bigarrena Iturengo Sunbilleneako Jose Ignacio Berak lortu zuen eta 50 euroko hirugarrena Iturengo Arroseneako Maribi Elizalde. Horrez gain, azientak aurkeztu zituzten baserritarrei 30 euro eman zitzaizkien parte hartzeagatik. Gainerakoan, behi, aretxe, zaldi, behor eta pottokak ere ikusi ziren Merkatu Plazan, eta eskulangileek ere ez zuten hutsik egin, nahiz eta, euriaren beldur, Merkatu Plazan izan beharrean, elizaren atarira eraman zituzten euren lanak.



PERTSONAIA

Javier MARIEZKURRENA

Kamioi-gidaria bikain denboraldi hasieran

Javier Mariezkurrena Doneztebeko kamioi-gidariak emaitza bikainak lortuz hasi du denboraldia. Maiatzaren 10ean eta 11n jokatu zen Montmelon Europako eta Espainiako Kamioi Txapelketako lehen saioa, eta ederki moldatu zen Mariezkurrena. Hilaren 10ean Man TGS 480 kamioiarekin seigarren postua lortu zuen Europako txapelketan; eta Espainiakoan lehena izan zen. Eguerdialdi batera lagundu ez ziola kontuan hartuz, lan ezin hobea egin zuen doneztebarrak. Biharamunean, maiatzak 11, zazpigarren izan zen Europa mailako lasterketan, eta bigarrena Espainiakoan. Italiako Misano zirkuituan jokatzeakoa zen bigarren saioaren atarian, Espainiako Kopan lehena zen saikapenean.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

BERA Zero ingurua klase guzietako insektuz (xamorra, ziazarra, ormierma, kukuxa...) eta arrotzi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 587 • Zelen, 42 A • BERA

BEINTZAKO OSTATUA
T: 948 45 00 14
www.beintza.com
www.beintza.com
11711 BEINTZA (BAIEN)
ORBELA

BERTIZARANA

Bertizaranako Eguna egingen da ekainaren 7an Narbarten

11:00etan Bertizaranako Herri Krossa jokatu da



ARGAZKIA: MARIA LARRETXEA

lazo bazkariko irudia.

ttipi-ttapa

Bertizaranako gazteek antolatuta, Bertizaranako Eguna egingen da ekainaren 7an, Narbarten. Azken urteotan bezala, Udalaren laguntza izan dute.

Goizean, 9:00etan dianak izanen dira Bertizaranako txistulari eta gaiteroekin. Segidan, 9:30ean gosaria egingen da eta ondotik, 10:00etatik 13:00etara, BKZren eskutik aisialdi ekintzak. Lasterka ibili nahiago dutenek, berriz, hor izanen dute herri krossa. 8,6 kilometroko luzera izanen du eta Narbartekeo plazan hasita, Oieregi eta Legasan barna pasatu da. Parte hartzeko hiru euro ordaindu beharko dira; Bertizaranakoek, ordea, bi euro. Emakumezko zein gizonezkoetan, lehen hiru sarituek garaikurrak eta sariak jasoko dituzte, eta horrez gain, Bertizaranako lehenbikoak txapela eta ardoa jasoko ditu. Parte hartzaileen artean kirol materialak eta eskualdeko produktuak ere zozketatuko dira. Informazio gehiago: 649 555686 telefonoan edo www.herrikrossa.com-en.

Gainerakoan, 12:00etan dantzak izanen dira, eta 14:30ean bazkaria. Bazkalondoa animatzeaz Koldo akordeoilaria arduratuko da, 17:30etik 21:30era. 22:00etan afaria egingen da, eta gauerditik aitzinera gaupasa izanen da Trikidantz taldearekin.

Ekaina
Junio

7

2008

Bertizaranako Herri Krossa

Narbarte / 8,6 km


Inskripzioa 3€

www.herrikrossa.com

Ordua
Hora


11

Goizez





BABESLEAK / PATROCINAN



LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





ITUREN

'Bota patsa!' antzezlanaren ikusgai izanen da ekainaren 8an

Ibintza Kultur Taldearen ekimena da

Arkaitz MINDEGIA

Ibintza Kultur Taldeak antolatuta, ekainaren 8an, igandearekin, 18:00etatik aitzinera lker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore ezagunak izanen ditugu Iturenen *Bota Patsa!* antzezlanarekin. Txalo konpainiaren lana da eta aipatutako bi aktore ezagunak dira protagonistak. Biak gimnasio batean elkartuko dira, eta haien arteko elkarriketaren bitartez komedia ari bat eskainiko dute.



Trinitate Eguna giro onean

Eguraldia lagun izan zen Trinitate Egunean, eta jendearen gogoia ere nabaria izan zen. Jen-de aunitz bildu zen Mendaurrera, batzuk meza entzun, bertzeak lagunekin ederki gosald... Baita Arantzako Mendi Itzulitik ere. Gosaltzeko

momentuan trikitixa eta panderoaz gozatzeko aukera izan zen Miriam eta Arkaitzekin. Mendaurko buelta egin ondok, eguerdian enbaltsetara jaitsi eta lagun artean bazkaltzeko aukera izan zen. Ohiturari segituz, Ibintza Kultur Taldeak bazkaria antolatu zuen eta 60 lagun elkartu ziren. Aurtiztarak, berriz, 18 lagune-ko kuadrilan giro ederean bazkaldu zuten. Bazkalondoa Sebastian trikitilariak alaitu zuen eta ilunabar aldera ez zen musika eta dantzarik falta izan enbaltsetatik herrirakoan. Aurtizen trago eta dantza egin ondok Iturengo goiko pisuetara jaitsi eta zortzikoa dantzatzu plaza-raino ailegatu zen jendea. Ordu tikiak arte giro paregabea izan zen.

Urrezko Ezteiak

Ekainaren 4an Arkupeak Erretiratuen Elkarteak urtero bezala Gorraitzen Urrezko eta Diamantezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldi egingen

die. Aurten Iturenen Ignacio Ariztegi eta Margarita Etxepetelekuk Urrezko Ezteiak ospatuko dituzte eta omenaldi berezia jasoko dute. Zorionak eta ongi pasa!

Ostatua ireki da

Maiatzaren 17an larunbatean ireki zituen atea Aurtizko ostatuak. 12:00etan pintxo goxo eta herriko txistulariekin egin zuten inaugurazioa.

Udaberriko ferian saria

Doneztebeko Udaberriko ferian Malerrekako latxa arrazako aharien lehiaketan bi sari herrira etorri dira aurten. 70 euroko bigarren saria Sunbilleneko Jose Ignacio Berak eskuratu zuen eta hirugarren saria Arroseneko Mari-bi Elizalde, 50 eurokoa. Zorionak!

Aurtizko joaldunak Beasainen

Maiatzaren 11n, Aurtizko joaldunak Beasaingo bestetan joareak jotzen egon ziren.



ARGAZKIA: UNAI BEREAU

Iturengo joaldunak Iruñean

Nafarroako Gobernuaren erabakiz, orain arte Soltxaga Jeneralaren izena zeraman Iruñeko osasun etxeak San Martin Doktoarearen izena eramane du hemendik aitzinera. Alejandro San Martin Satrustegi Larraintzarren, Ultzaman, jaio zen 1847an eta 1908an hil zen Madrilan. Bere garaian ospe haundiko medikua izan zen. Baina hara non, medikuntzako bere ibilbidea Iturenen hasi zuela, eta gerora Sevillako eta Madrilgo unibertsitateetako katedraduna izatera pasatu zela. Ospitaleko zuzendaria ere izan zen eta Hezkuntza ministroa ere bai. Maiatzaren 7an inauguratu zuten osasun zentroaren izen berria, eta Iturengo joaldunak han izan ziren.



M^o JOXE APEZTEGIA

Lehenengo Jaunartzeak

Egun ezin hobea pasatu zuten Hodei, Ane, Ira-txe, Wilian, Andoni, Olaia, Antxon, Urtzi eta euren familiek neska-mutikoen Jaunartze egunean.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> Langile autonomoak Nekazariak eta mendi langileak Nominak eta Aseguro Sozialak Lan-Kontratutarako laguntzak Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza ezberdinak Kontabilitateak IVA eta IRPF Errenta aitopenen Elbaritasun eta jubilazio espedienteak Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	--

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Añorgatik 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20018 DONOSTIA

AULKI JASOTZAILAK

ARKUPEAK

Urrezko eta Diamantezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia egingen die Arkupeak Elkarteak ekainaren 4an

Guztira, 14 bikote eta 85 urteko 39 lagun omenduko dira Gorraizen

ttipi-ttapa

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak urteroko omenaldi-bazkaria egingen du ekainaren 4an, Gorraizen. Urrezko eta Diamantezko Ezteiak bete dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituzten bazkideak omenduko dira, eta ohi bezala, me-

za entzun ondotik, banan-bana banatuko dira oroigarriak.

Aurten guztira, Urrezko Ezteiak bete dituzten 12 bikotek jasoko dute omenaldia; Diamantezko Ezteiak egin dituzten bertze bi bikotek; eta 85 urte bete dituzten 39 lagun ere omenduko dira.

URREZKO EZTEIAK

Salvador Madariaga Elizondo - Secundina Bergara Errandonea	ARANTZA
Carlos Elizalde Iturralde - Juana M ^a Amigorena Goni	ARIZKUN
Valeriano Sanchez Garzia - Teresa Hernandez Martin	ARIZKUN
Pedro Martikorena Iburguren - Josefa Iruretagoiena Intxauspe	BERA
Paulino Sebastian Quirce - M ^a Isabel Minguez Bengoetxea	BERA
Jose Esteban Telletxea Mindegia - Francisca Etxarte Tapia	BERA
Jose M ^a Olazar Agerralde - Begoña Apeztegia Saldias	ELGORRIAGA
Ignacio Ariztegi Legazkue - Margarita Etxepeteleku Iantzi	ITUREN
Francisco Torres Ruiz - Luisa Alcalá Espinosa	LEITZA
Andres Lasarte Otermin - Maritxu Mujika Elduaian	LEITZA
Fermin Azpiroz Zabaleta - Felicitas Elduaian Baraibar	LEITZA
Serapio Altzuri Ezkurra - Justa Ibarra Agerralde	SUNBILLA

DIAMANTEZKO EZTEIAK

Antonio Urrutia Bikondoa - M ^a Jesus Sarratea Etxalar	IRURITA
Modesto Gago Lekaroz - Francisca Agesta Altzugarai	SUNBILLA



85 URTEKOAK

Cruz Magirena Goienetxe	AMAIUR
Ramon Migeltorena Mitxelena	AMAIUR
Concepcion Zaldain Agerre	ARIZKUN
Cornelio Ubiria Leitza	ARANTZA
M ^a Josefa Agirre Irtzoki	BERA
Marcelina Andueza Larralde	BERA
Manuela Dagerre Martinez	BERA
Beronika Barrenetxe Zelaieta	BERROETA
Jaime Agirre Mikeo	DONEZTEBE
Felix del Moral Fraguas	ELBETE
Gregorio Bengoetxea Esparza	ELIZONDO
Braulio Iturria Galartza	ELIZONDO
Miguel Lezaun Ioldi	ELIZONDO
Teodoro Altzuguren Iturria	ETXALAR
Francisca Danboriena Etxeberria	ETXALAR
Juanita Goni Istilart	GARTZAIN
Juan Etxegia Berroeta	GOIZUETA
Ignacia Lujanbio Loiarde	GOIZUETA
M ^a Josefa Iturria Madariaga	IGANTZI
Nikolas Telletxea Arotzena	IGANTZI
Jose Ziganda Legarreta	IRUN
Micheline Chaumié de Gomez	IRUN
Francisco Eskudero Santesteban	IRUN
Evaristo Graziarena Mitxelena	IRUN
Paulina Rodriguez Gomez	IRUN
Pilar Matxin Iso	IRURITA
Clara Mitxeo Oteiza	LEGASA
Javier Arrijujuria Jaramillo	LEKAROZ
Julia Alduntzin Zabaleta	LEITZA
Martin Jose Labaien Lasarte	LEITZA
Miguel Antonio Sagastibetza Zabaleta	LEITZA
Carmen Perez Galilea	SALDIAS
Josefa Apeztegia Petrirena	SUNBILLA
Antonio Etxeberria Irigoien	SUNBILLA
Jose Mitxelena Jorajuria	SUNBILLA
Pascuala Lastiri Ibarra	SUNBILLA
Francisco Pascual Barrena	SUNBILLA
Manuel Maritorea Etxeberria	URDAZUBI
Pakita Etxeberria Gastearena	ZUBIETA

Puente Viesgoko bainuetxera ateraldia antolatu du Arkupeak-ek

ttipi-ttapa

Azken 20 urteotako ohiturari hutsik egin gabe, Arkupeak Jubilatuen Elkarteak Kantabriako Puente Viesgoko bainuetxera irteera antolatu du uztaileko. Zortzi eguneko bidaiaren 9tik 17ra, eta hango hotelean egingen dute egonaldia. Izena emateko eguna ortziral hau, maiatzak 30, izanen da, eta horretarako Elkartearen 948 450878 telefonora deitu beharko da (11:00etatik 12:00-etara). Bidaiaren prezioa 680 eurokoa izanen da logela bi-koitzean, eta 790 eurokoa bakarkako logelan. Ordainketa ekainaren 6an egin beharko da, Elkartearen bulegoetan.

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaleja Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

APARAN, S.A.
BROKOLAI eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

KULTURA

Instituetako 400 ikasletik goitik parte hartuko dute urteroko kontzertuetan

Asteazken eta ortzegun honetan eskaintzekoak dira lehen biak eta azkena hurrengo astean

ttipi-ttapa

Azken urteotako ohi-turari segituz, Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leizta eta Altsasuko instituetako DBHko ikasleak kontzertuak eskaintzen ari dira, ikasurte guztian musika arloan ikasi eta landu dutena erakusteko. Aurtengo topaketak hamargarren edizioa du, eta horren harira, zerbait berezia egiteko ikasle beranoek ere parte hartzeko aukera izanen dute. Ehunka ikasle parte hartuko dute aurten ere. Berakoan, erraterako, 425 ikasle inguruk.

Lehendabiziko kontzertua asteazken honetan egitekoa zen, maiatzaren 28an, Berako Eztegarra pilotalekuan. Bigarrena, berriz,



ARTXIBOA

Instituetako musika ikasleak emanaldiak eskaintzen ari dira herriz-herriz.

ortzegun honetan egitekoa da, Lekarozen. 17:00etatik aitzinera hasiko da emanaldia. Hirugarren eta azken kontzertua heldu den aste-

an izanen da, ekainaren 4an, asteazkenarekin, Leitzako Amazabal pilotalekuan. Hau ere 17:00etan izanen da. Urteik urtera eskaintzen

dituzten doinuak aldatu egiten dira, euskaldunak eta kanpokoak izaten dira, eta aurtengoak hauek izanen dira: *Buhamiak* abesti herri-

koa, Red Hot Chili Pepper-en *Otherside* kantua, Ibon Koteron eta Kepa Junkeraren *Odolare Boza*, The bogglesen *Video killed the radio star*, Credence Clearwater Revivalen *Have you ever seen the rain*, Hertzainak-en *Aitormena*, John Ryan's *Polka* kantu tradizionala, Carl Orffen *Carmina Burana O fortuna* eta *Fortune plango vulnera*, Junkeraren *Bok Espok*, The Ramonesen *Blitzkrieg Bop* eta *Beat on the brad* eta Antonio Agilarren *Caballo Prieto Azabache*.

Zuzendari lanetan, berriz, Iñaki Otaño, Amaia Cordova, Jabier Etxeberria, Aitziber Sanz, Aitor Larrañaga eta Joxan Zabalo ari dira.

ZJ
Zalain
 jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin
 Zalain auzoa z/g
 Tfnoa: 948 63 09 67
 BERA

ERREKALDE
 PLATER KONTRAKTUALAK
 PINTURAK
 BERRIKETA

Ongi pasa bestak!
 TFABA: 948 630 259 BERA

MERTZERIA
Leñe
 LENTZERIA
 Tel: 948 627 914
 Donibait Plaza, 10 - LESAKA

Maderas
GOMEN
 Tel: 948 580 645
 Zaldubia industrialdea
 IRURITA

- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableruak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

arkitektoak
 ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
 URBANIZAZIO PROIEKTOAK
 ETXE BERRITZEAK
 NABEAK
 KONSULTAK
 INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
 BERA - Eztegarra, 8 behea - 948 625 232

KULTURA

Cederna-Garalurrek antolatutako idazlan saritua goizuetarrena

Larraitz Salaberria eta Aitzpea Huizirena da hautatua



ttipi-ttapa

Cederna Garalur El-karteak antolatutako *Europako Arteak eta Letrak* izeneko lehiaketan Goizuetako Andres Narbarthe Xalto eskolako ikasleek lehendabiziko saria eskuratu dute aurten ere idazlan-modalitatean. Joan den urtean ere idazlanenetan lehendabiziko hiru sariak Xalto eskola-koentzat izan ziren, eta aurtengo lehenbizikoa ere bai. Marrazki eta idazlan lehiaketa izan da Cedernak aurten bigarrenz antolatu duena: Haureta Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratua lehena, *Marraztu zure gela* izenekoa. Eta Bigarren Hezkuntzakoei zuzendua bertzea, *Eman jarraipena historiari...* idazlan lehiaketa. Bigarren kasu honetan izan dira sarituak goizuetarrak. Ondoko egoera aurkeztu zitzaizen ikasleei: *«gelako entrenatzailea zara saskibaloi txapelketa batean parte hartzeko, eta 21 ikasleren artean taldea osatuko duten 8 kideak aukeratu behar dituzu, eta aukeraketaren arrazoiak argudiatu»*. Nafarroako Mendialdeko sei ikastetxetatik 10 idazlan aurkeztu dira, bikoteka idatziak, eta Goizuetako sarituak Larraitz Salaberria eta Aitzpea Huizi dira. Sari gisa, egunkari bat eta bolaluma bat jasoko dituzte, baita gelarentzako sari kolektiboa ere: Orgiko haritzira txangoa eta eztiaren museora bisita. Argazkian sarituak ageri dira.

5+5 Gordailua

oparia + %5

Opariaren balorikoa %5-eko gehigarria izango da eta bostetik sei sariak izango dira gehienez.

Kontuz, 12 hilabeteko epean sartuko da 5+5 Gordailuarekin, jarduera bakoitzaren aurreko egunetik geroztik. Lehen saria U.T.B. eskuratu ahal izango da azkeneko 6 hilabetetan.

Gordailua haiei den egunetik 6 hilabetetara erabilgarritasun osoa izanen duzu gaurtik gaba.

1. NESPRESSO DELONGHI KAFE-MAKINA
KODU: 10000000000000000000
2. TONTOM GPSa - SONY ARGAZKIMAKINA ZMPK300
KODU: 10000000000000000000
3. LG L111 HUSIA LCD 10"Kaps. 101 tangen
KODU: 10000000000000000000
4. GOMPAO EBURKO ORDENAGAILUA
KODU: 10000000000000000000
5. LG L111 HUSIA LCD 10"Kaps. 101 tangen
KODU: 10000000000000000000

Opariaren balorikoa %5-eko gehigarria izango da eta bostetik sei sariak izango dira gehienez.

KODU: 10000000000000000000

nire aukera

LEITZA

Euskaraz Bai ekitaldia egingen da ekainaren 7an Zinean

Areso eta Leitzako eragileak bilduko dira, 17:00etatik aurrera

Joseba URKIOLA

Kontseiluak antolatuta, 2008ko Euskaraz Bai ekitaldia ekainaren 7an izanen da. Kontseilua sortu zenetik 10 urte bete dira aurten, eta hori dela eta, Bai Euskarari izeneko programak, Euskaraz Bai izendapena hartu du. Ekainaren 7ko ekitaldia 17:00etan hasiko da Zinean. Protagonistak Leitza eta Aresoko eragile desberdinak izanen dira, eta besteak beste, proiektzio bat, Xabier Mendigurenek eskainitako hitzaldia eta Aurrera Kirol Elkarteko dantzariak izanen dira.

Ume eta gazteentzako tailerrak

Udan ez gelditu etxean lemapean Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Leitzaaldeko Gizarte eta Zerbitzu Mankomunitateak etxeko txikienei zuzendutako tailer batzuk antolatu dituzte. Zehazki, sormen tailerra, gorputz tailerra eta haur txokoa izeneko ekintzak antolatu dituzte.

Sormen eta gorputz tailerrak ekainaren 30etik uztailaren 25a bitarte iraungo dute. 5 eta 12 urte bitarteko haur eta gazteei egonen dira zuzendutakoak. Biak tailerrak izan arren, bakoitzean guztiz desberdinak diren jarduera eta ekintzak burutuko dira.

Sormen tailerrean, arkitektura, birziklapena, argia- koloreak- argaz-

kiak eta ipuinak lantzeko asteak antolatu dituzte. Gorputz tailerrean, berriz, olinpiadak, natura-ura, musika-dantza eta zirkoa izendatutako lau aste burutuko dituzte. Hemen ere, bost egunetan guztiz desberdinak izanen diren jarduerak egingen dira.

Haur txokoko protagonistak 3 eta 7 urte bitartekoak izanen dira. Gainera, aurreko tailerrean ez bezala, hemen bi asteko iraupena izanen duten hiru txanda osatzea da helburua. Lehenak ekainaren 30etik uztailaren 11ra iraungo luke; bigarrenak uztailaren 14tik 25era eta azkenekoak uztailaren 28tik abuztuaren 8ra.

Antolatzaileen arabera, taldeak ez dira oso handiak izango eta izena ematen dutenen arabera, halako programazioa osatuko da. Ondorengo egunetan izena eman duten guztiei egutegiaren programazioa zehatza eskainiko zaie.

Plazako Eskuz Binakako Txapelketa

Maiatzaren 17an hasi zen Plazako Eskuz Binakako Txapelketaren XVI. edizioa. Aurtengo honetan 14 bikotek eman dute izena. Guztiak lau taldetan egonen dira banatuta. Bakoitzeko bi bikote onenek lortuko dute txapelketan aurrera egiteko aukera. Bi jar-



ARGAZKIAK: AUERRERA PILOTA ELKARTEA

Aurrerako pilotariak Herriarteko Txapelketan

Aurten ere Nafarroako Herriarteko Txapelketan parte hartzen ari da Aurrera Pilota Eskola. Dagoeneko hainbat dira jokaturako partidak. Maiatzaren 17an Iruñiaren aurka jokatu zuten. Alebin mailan, Sagastibeltza Lasartek eta Garziarenak 5 eta 18 irabazi zuten; infantiletan, Igartua eta Hernandezorenak 18 eta 2 galdu zuten; gazteen mailan Jaunarena eta Sagastibeltzak 12 eta 22 irabazi zuten eta maila nagusian Lansalot eta Iriartek 22 eta 8 galdu. Hurrengo partida Iruztunen kontra jokatu zuten. Alebinetan 18 eta 0ko emaitzarekin gailendu ziren leitzarrak; infantiletan, ordea, 3-18 galdu zuten. Gazteetan, garaipena herritarrentzat izan zen, baina ez maila nagusiko partida, 8 eta 22 galdu baitzuten Lansalot eta Iriartek. Lehengo astean Donezteberen aurka jokatzekoa zuten, baina lerro hauek idazterakoen ez genuen emaitzen berririk. Argazkia Iruztunen kontra jokaturako norgehiagokakoa da.

dunaldi igaro ostean, hauexek dira maiatzaren 31n 16:00etatik aurrera ikusgai egonen diren partidak: I.Aldaia-U.Olano/ I.Aizagirre-E.Andueza; J.Arangoa-A.Abruzza / G.Etxeberria-A.Sagastibeltza; A.M Loiarde-M.Olano/ A. Bizente-I.Mutuberria; I.Zeballos-M.Iriarte/J.Zestau- I.Zubillaga; I.Makazaga-A.Makazaga/I.Alduntzin-J.Sagastibeltza; A.Gartzia-J.M.Larraia/A.Aranburu-O.Alduntzin.

Zaldi Eguna ekainaren 14an

Aurtengo Zaldi Eguna aurreko edizioak baino le-

henago izanen da: ekainaren 14an. Aurrera Pererra Taldeak antolatuta, 9:30etik hasi eta gauak ongi etorria egin bitarte, ekitaldi ugari antolatu dira egun osoan.

Zaldiak protagonista nagusizat hartuaz, Leitzara gerturatzen den orok ekintza eta aktibitate ugari ikusteko parada izanen du. Aipatu, bazkarirako sarrerak aurretiaz erosi ahal izanen direla. Haurrentzako menua 15 eurokoa da, eta helduena 25 eurokoa. Informazio gehiagorako 696101564 zenbakira deialdateke.

9:30ean Inguruarten

Guratz-Peruarritzulia

10:30ean

Leitzatrek
Haurrentzat poniak
Perraketa
Zaldi erakusketa
Zaldi Paseoak

13:30ean, plazan

Zaldi proba

14:30ean, plazan

Bazkaria

17:30ean, Inguruarten

Western heziketa
Heziketa naturala
Zalburdi erakustaldia
Espainiar heziketa
Behor estalketa
Jinetada

23:00etan, Aurreran

Country Musika:
Lobo and Carmina

GOIZUETA

Lesakako Musika Banda izanen da herrian igande honetan

Kanariok Xabier Berroetari eskainitako pieza joko dute, besteak beste

Esteban AROTZENA

Lesakako Udal Musika Bandaren emanaldia antolatu dute Udalak eta Umore Onak igande honetarako, ekainak 1. Zizkuitz txarangaren garaietatik herrian hagituz ezaguna den Mikel Iriartek zuzenduko du kontzertua.

Joakin Ortega Kanariok Xabier Berroetaren omenez konposatutako piezaren berri jaso zenean sortu zen kontzertua herrian antolatzeko asmoa. Iriarteren esku jarri zuen Kanariok pieza berria eta igande honetan ezagutzeko aukera izanen dute herritar guztiek. 12:45etik aurrera kalejiran ibiliko da banda herrian, eta 13:00aren bueltan izanen da kontzertua plazan.

Argazki erakusketa

Herriko eskolaren 25. urteurrenaren festaren bame, argazki erakusketa antolatzea bururatu zaie Xaltokoei. Horretarako, ekainaren 9rako Eva anderenoak jaso izan beharko du materiala. Beraz, ikasleei, ikasle ohi, guraso, guraso ohi eta edozein herritarrari deitzen zaie lerro hauen bidez, gaiarekin zerikusia duten argazkiak Evari eman diezazkioten.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Lehen Jaunartzea


Argazkiko zazpi mutiko hauek ospatu zuten Lehen Jaunartzea maiatzaren 11n. Irudi bitxia egitan.



ARGAZKIA: PABLO MIRANDA

Txakolindegira ateraldia

Umore Onak antolatuta, maiatzaren 1ean Zarauzko Santarba txakolindegian izan zen argazkiko herritar koadrila. Esan beharrik ez dago giro onean ibili zirela, aurpegian ederki antzematen baitzaie. Elkarteak udaberri-rako antolatutako azken Kultur Bidaia izan zen txakolindegikoa.



PERTSONAIA

Laxaro SALABERRIA

Sevillatik Santiagora 28 egunez

Laxaro Salaberria ibiltariak maiatzaren 6an jo zuen Conpostelako Santiago bosgarren aldiz, 28 egun lehenago Sevillatik aterata. Oinez, jakina. 1.025 kilometro daude bi hirien artean. Beraz, batz beste egunean 36 kilometro egin zituen Labe-kon mutilak. Orain dela 10 urte egin zuen Laxarok Santiagoko bidea lehenengo aldiz. Orreagatik atera zen orduan eta 15 egun igaro orduko Galiziako hiri horretako katedralaren aurrean zegoen. Handik bi urtetara, 2000an markak hautsi zituen, Donibane Garazitik Santiago bitarteko 750 kilometroak 12 egunez egin baitzituen 65 kilometroko batz beste-koarekin. Bi urte horietan bere burua ederki probatuta, askoz lasaigo hartu ditu Laxarok ondorengo hiru bidaiak: beste behin Orreagatik, Huescako Somportetik (800 kilometro eta 26 egun) eta hasieran aipatutakoa. Levanteko ibilbidea deritzona egin behar omen du hurrengo, hau da, helmuga berarekin baina Valentziatik aterata.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxean
Alasta karrika
BERA NAFARRON

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491
Mendiaketa etxea, 34 ZUBIETA

ARESO

Eskola Ibiltarien barne, Andaluziara joan dira eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Ekainaren 2ra arte han egonen dira

Juana Mari SAIZAR

Espaniako Hezkuntza Ministerioak Nafarroako eta beste autonomia erkidegoetako Hezkuntza Departamentuekin antolatzen duen Eskola Ibiltariak programaren barne, Andaluziara joan dira 5. eta 6. mailako ikasleak, zehazki Granadara eta Almeriara. Ituren eta Aresokoak elkarrekin joan dira eta ekainaren 2ra arte han egonen dira, Tarragonako eta Madrilgo taldeekin. Besteak beste, Granada eta Almeria hiriak, Alhambra, El Ejido, negutegiak, basamortua, lorategi botanikoa, Mojacar eta hondartzak bisitatuko dituzte.

Obrak Herriko Etxean

Herriko Etxean, idazkariaren bulegoa eta orain arte artxiboa bezala erabiltzen zen beste bat zaharberritzen ari dira. Margotu, zolaberri-tu eta altzari berriekin apainduko dute. Gisaberean, idazkariaren bulego ondoan dagoen gela zerbitzu anitzetarako erabiliko da aurrerantz; entzulerik ez dagoen batzarretarako, edo alkaterekin bilerak egiteko, adibidez. Bitxikeria gisa, aipatu, artxiboa tokiz aldatuko denez, leku aldaketa lanetan ari zirela, liburu zahar bat topatu zutela langileek, 1600. urtekoa, hain zuzen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR
Andaluzian ibiliko da neska-mutil koadrila hau.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR
Bertsopaper lehiaketan sarituak Nafarroa Mendebaldeko XXII. bertsopaper lehiaketan hainbat aipamen jaso dituzte herriko ikasleek: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako kategorian Oier eta Maider Barandiaranek, eta 5. eta 6. mailakoan Haritz eta Ane Miren Barandiaranek.



PERTSONAIA

Ainhoa NIETO

'Ordu txikitan' saiotik Futuroscopera

Mikel Elizegik larunbat gauean ETB1 en aurkezten duen *Ordu Txikitan* saioan egon dira berriki Mikel eta Ainhoa Nieto aita-alaba aresoarrak. Gurasoek euren seme edo alabarekin parte hartzen duten lehiaketan parte hartu dute, eta ez hori bakarrik, Frantziako Futuroscope parkera bidaia ere irabazi baitute. Gure aldetik, zorionak eman beharrean gaude!

ARANO

Abian dira pala eta eskuz binakako torneoak

Finalak Santio bestetan jokatu dira

ANSA

Aurten ere, Arano-ko jaien bueltan antolatuta dira pala eta eskuz pilota txapelketak. Izen ematea zabalik dago dagoeneko eta herriko tabernetan egin daite-

ke. Epea ekainaren 8an itxiko da eta parte hartzeko 12 euro ordaindu beharko dira. Emakumezkoak palaz, eta gizonezkoak palaz eta eskuz aritu ahalko dira, beti ere bikoteka.



ARTXIBOA

Duela hiru urteko txapelketan ateratakoa da argazkia.

Partidak frontoian jokatu dira—eguraldiak laguntzen badu—ekainaren 14tik aurrera eta

finalak uztailaren 26an jokatu dira herriko Santio festen egitarauaren barruan.

Parte hartzeko ezinbestekoa da pilotariak federatu gabeak izatea. Animatu eta parte hartu!

BAZTAN

Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko galdeketa egiten ari da Udala

Maiatzaren 19an hasi zen eta hilaren 31 arte luzatuko da

Maite OTEIZA

Maiatzaren 19az geroztik Udala Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eskaria aztertzen ari da, gazteei inkestak eginez: 012 zerbitzutik 25 eta 35 urte artean dituzten baztandarrei deiak egiten ari dira inkestatzaileak. Horrez gain, Herriko Etxetik jakinarazi dutenez, udaletxean «mugarik gabeko Babes Ofizialeko Etxebizitza beharra-eskariari buruzko erregistro» sortuko da. Erregistro honen bitartez Udalak Baztanen Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruan dagoen eskariari buruzko datuak lortu nahi ditu eta azpimarratu dutenez, «ez da, inolaz ere, etxebizitza promozio batekin lotuko». Inkestatzaileek maiatzaren 31 arteko epea dute galdeketaekin akitzeko.

Zortzikoa Guinnessen

Bertan Merkatarien El-

karteak Guinness liburuan marka ezarri nahi du munduko zortzikorik jendetsu eta luzeena antolatuz. Eguna zehaztu gabe badago ere, seguraski Elizondon eginen da eta erantzun ona izanen duelakoan daude. Bertalde, kanpaina berria paratu du martxan bezeroak saritzeko: *Mila eta bat sorpresa*. Elkarteko dendetan erosketak egiterakoan bezeroak boletoa eskuratuko ditu, eta horiekin sari banaketan parte hartu ahal izanen du. Boletoak maiatzaren 31 bitarte banatuko dira, eta ondotik, mila sari banatuko dira, baita Kantabriako Lantarongo bainuetxera joateko bi lagunentzako zozketa egin ere.

Txirindulari baztandarrak

Txirindularitza garaia hasia da, eta eskualdeko txirindularien izenak hedabideetan agertzen hasiak dira beren garai-



ARGAZKIA: M^a JOSEFA BEGORRE

Berriz ere musean txapeldun baztandarrak
Berriki San Frantziskoko Euskal Etxeko mus txapelketan irabazle aterako baztandarren izenak aipatu genituen, eta orain ere halaxe eginen dugu. Izan ere, San Frantziskoko Anaitasuna Klubeko txapelketan Jesus Arriada arizkundarra, Miguel Ibarra sunbildarrarekin txapeldun izan da. Argazkian biak ageri dira, finalean garaitu zuten bikotearekin.

penengatik. Iñaki Villoria eta Francisco Meoki baztandarrak, Asier Apeztexea aranztarra, Jesus Mariñelarena sunbildarra eta Jose M^a Goia igantziarra daude tartean.

Baztandarrei dago kienean, Monteagudoko lasterketan, egutegiko lehenbizikoan, MASTER 30 kategorian, Scania-Conauto taldean ari den Iñaki Villoria iruritarra gelditzen lehena. Lasterketa hau Pedro Canariasen omenez jokatzeko den Nafarroako Koparako puntuagarria izaten da eta bikain ibili zen iruritarra. Meoki, berriz, seigarrena izan zen. Mendiko saria ere Iñakik lortu zuen eta taldeko sailka-

penean Scania-Conauto atera zen garaile. Aipatzekoa da, Meoki seigarren izanda, bere kategorian garaile izan zela.

Bigarren garaipena apirilaren 13an Leongo La Virgen del Caminon lortu zuen Villoriak. Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu; bortz graduko temperatura zegoen, haitze gogorra eta lasterketaren akabailan trudiak eta euria ere bai. Helmugarako 10 kilometro falta zirenean, Iñakik pelotoitik ihes egin eta lehenengo ailegatzea lortu zuen, bigarrenari 21 segundoko aldea ateraz. Lasterketa berean, Francisco Meoki Elizondorra bederatzigarren izan zen

MASTER 40 kategorian.

Oroimenaren Autobusa

«1936ko kolpearen ondorioz faxismoari aurre egiteagatik zigortu zituztenak gogoan», Oroimenaren Autobusa Nafarroa osoa zeharkatzen ari da eta hilaren 17an Baztandarren Biltzarren eskutik Elizondon egin zuen geldialdia. Horren harira, aitzineko egunean, bideo emanaldia eta solasaldia izan ziren Arizkunenean. *Ezkaba. La fuga de las cárceles franquistas* filma ikusgai izan zen, eta solasaldian Koldo Pla mintzatu zen, Txinparta Elkarteko kidea.

MENDI ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
T: 948 453 050
N-121-B, 66. km
T. AMAUR

Iñaki Alzuet margoak
Fotografiak - Somatellak
Dekorazioak (eskuak, bedaburak...)
Plakardak - Latakak eta banakatuak kalderan
Kamioa Eliza - Lantzer Auzoa - 31711 ELIZONDO
Telefonoa: 659 862 417

BAZTAN PREZIO LEHIAKORRAK
zurgindegia

- Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- Armairu enpotratuak
- Sukalde eta bainugelarako altzariak

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367 • M. 649 438 210

BAZTAN

Erdizen inguruko inkestak egin ditu Erdiz Bizirik-ek etxez etxe

Inkestak egiteko lantalde profesionala kontratatu zuen

ttipi-ttapa

Etorkizuna erabakitzeko baliagarria izan daitekela iritzita, Erdizek dituen balore ekologikoak eta Baztan eta baztandarrekiko erran nahi duena ezagutu nahian, inkestak egin ditu Erdiz Bizirik Herri Plataformak etxez etxe. Horretarako lantalde tekniko bat kontratatu zuen plataformak, «*lana profesionaltasunez eta ikuspuntu objektibo batetik egiteko*». Inkesta maiatzaren 16tik 25era bitarte banatu zen etxez etxe, eta Baztango herri guztietan paratu ziren inkestak jasotzeko puntuak. Aipatu, inkesta anonimoak izanzen direla, baina banatu aitzinean zenbatu egin ziren hasierako eta bukaerako kopuruak berdinak izateko. Lerro hauek idazterakoan ez genuen gainerako xehetasunen berririk.

«Ekintza bandalikoak» gaitzetsi ditu Udalak

Maiatzaren 10etik 11rako goizaldean ezezagun talde bat Baztango frontoi estalira sartu zen hiru ate hautsi ondok. Kristalak eta za-

borrontziak ere txikitu zituzten, eta edari makinako dirua hartu zuten gero. Galerak zenbatekoak izan diren jakinarazi ez badute ere, makina guztiz suntsitua gelditu zela adierazi du Udaletik. Foru Polizia gertaera ikertzen ari da egileak zein izan diren jakiteko.

Gertatutakoaren harira, Santiago Aldako Udaleko jarduneko alkateak oharra kaleratu zuen: «*Erabat gaitzetsi eta kondenatu nahi ditugu Baztanen, eta batez ere Elizondon, azken aldiaren ohiko bihurtu diren ekintza bandalikoak. Igandeetan parretak margotuak agertzen dira, zuhaitzak lurretik aterata edo hautsita, herriko altzariak eta trafiko seinaleak hondatuak*».

Bertzalde, oharrean gaineratutakoaren arabera, «*auto, motor eta kamioi ttikien lasterketak Udalaren bertze kezka iturri dira*». Aldakoren hitzetan, halakoa ohiko bihurtu omen dira Arizkongo Ordoki industrialdean batez ere.

Udalaren eskariz, Foru Poliziak egun, ordu eta leku gatazkatsue-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Sasoian dagoela berrets du Xegonek

Berroetako besten barne, Zigako Juan Felipe Saharrea Huarte Xegonek apostua egin zuen. Orain pare bat urte ere Berroetako bestetan aizkoran desafioa egin zuen, baina sekula ez aurtengoaren mailakorik. Saioa mendira igoko zela errana zuen, 40 kilo soinean hartuta, nahiz eta azkenean 44 kilokoa izan. Behin Saioara —1.418 metro— iristean, karga kendu eta Berroetako herriko plazan 100 kiloko harria bitan goratu ondok, lau kanardiko ebakiko zituela erran zuen. Erran eta egin. Lan guztiak 6 ordu eta 22 segundotan egin zituen, Zigatik atera zenetik aizkora bukatu arte. Rafael Arretxeak txapela jantzi zion eta jendearen animoa eskertu zuen besoak goratuz.

netan zaintza areagotu omen du, baina hala ere, «*herritarren artean sortu den kezka ikusita, neurri gogorragoak hartzea pentsatzen ari da Udala*», dio oharrak.

Jorge Oteiza museoko estatutuak

Udalak Elizondoko Jorge Oteiza museoko estatutuak onartu ditu. Zuzendaritza taldea izendatu du funtzionamendu on baterako, nahiz eta balio juridikorik ez izan.

Errektoretza taldea Udaleko hiru kidek —alkateak eta bi zinegotzik—, eta Elizondoko herriaren aldetik bertze hiruk —alkateak eta baztarrean aukeratutako bi herritarrek— osatzen

dute. Goreneko postua urtero tartekatuko dute bi kideren artean, herriko alkateak bi urterako agintaldia duelakoz.

Museoaren bidez, Errektoretza taldeak baztertuak edo galtzeko arriskuan dauden tresnak zaindu eta berreskuratu nahi ditu. Bertze aldetik, turismo arloan antolatzen diren ekintzetan parte hartu nahi luke.

Artea Oinez 08 erakusketa

Maiatzaren 15ean ailegatu zen Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxera Artea Oinez 08, hau da, Nafarroa Oinez dela-eta urtero antolatzen den arte-erakusketa. Erakusketa ibiltari hau Iruñean jarri zen

abian, eta, Tolosan barrena ibili ondok, Elizondon izanen da ekainaren 8a bitarte. Asteartetik larunbatera, 18:30etik 20:30era egonen da ikusgai. Elizondotik Lizarrara joanen da erakusketa, eta han izanen da ekainaren 10etik ekainaren 22ra.

Sutea Elizondon

Kalte pertsonalik eragin ez zuen sutea sortu zen maiatzaren 13an Elizondon, Mauricio Elizalde plaza eta Felix Iriarte arteko etxebizitzaren batean. Antza, sukaldean piztu zen sutea eta sortutako ke-adar beltza itzaltzeko suhiltzaileen beharra izan zen. Kalte materialak ere ez ziren haundiak izan.

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenerdik larunbatera
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 Iruñea - Irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

BAZTAN

Iruritako eskola eraikitzeko Udalak proposatutako eremua ez da nahikoa

Ez ditu arautegiak eskatzen dituen baldintzak betetzen

Maite OTEIZA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko teknikari baten bisita izan da Iruritan berriki, eraiki behar den eskola berriaren lur eremua ikuskatzen, Udalak eskaintzen duen lur eremua ikusten, hain zuzen. Bisita honetan, Baztango bi zinegotzi, arkitektoa, Gobernuko Hezkuntza Departamentuko teknikaria, eskolako zuzendaria eta Baztango herrietako eskolako koordinatzaileak parte hartu zuten. Lur eremua, frontoi gibelego aldea eta erreka baten artean dago, baina ez dago leku nahikorik, gaur egun arautegiak eskatzen dituen neurriak eta baldintzak betetzeko.

Eskola berriak, 2010-2011 ikasturtean, bere ateak irekiko dituela aurreikusia dago. Hartara, hilabete batzuk badira, egokiagoa den bertze lur eremua aurkitzeko.

Batzartokia Arraiozen

Nafarroako Kutxaren zeuk aukeratu, zeuk erabaki programaren bitartez lortutako diruari eta Udalak emandako ekarpenari esker Arraiozek batzartokia izanen du lehendabiziko aldiz batzarreak edo bilkurak egiteko. Zeuk aukeratu, zeuk erabaki egitasmotik 23.800 euro jaso dira, eta gainera proiektua babesteko beharrezkoak ziren herriarren 172 sinadurak ere bildu dira. Horrez gain, Udalak 30.000 euroko ekarpena eginen du.

Orain arte Apezenean egiten zituzten bilkurak, baina hemendik guttira batzarleku propioa izanen dute. Dagoeneko eraikin berria egiteko lanak hasiak dira, plazan ari dira, frontoi estaliaren eta elizaren ondoan. Abuztuaren 15ean inauguratuko dutela iragarri dute.



ARGAZKIA: CRISTINA URTASUN

Irudian ageri den horixe da Udalak eskola egiteko proposatutako lur eremua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztandik Bartzelonako enpresa simulatuen azokara Bertze urte batez, Bartzelonan egiten den enpresa simulatuen nazioarteko azokan izan dira berriki Lekaroz-Elizondoko BHIko Administrazioa eta Finantzatuko Goi Heziketa Zikloko ikasleak. Guztira 14 ikasle eta bi irakasle egon dira, eta euren enpresa simulatuaren eskaintza zabala erakutsi dute, likoreetan aukera anitza —Baztan Likoreen laguntzaz— eta horrez gain, Mal-korrako txokolatea. Argazkian azokan parte hartu zutenak ageri dira.

Euskal curriculuma

Maiatzaren 13an gurasoendako euskal curriculumaren aurkezpena egin zen Iruritako

Gizarte Bilgunean. Izan ere, euskal curriculumak sortu nahi dute Euskal Herriko Ikastolen konfederazioak, Udalbiltzak eta Sortzen Ikasbatuaz

elkarrekin eta horretarako formazio aurkezpenak egiten ibili dira herriz herri. Guztira 59 aurkezpen egin dira, eta horietatik bat Iruritan.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

Thoa.: 948 581 468
Mug.: 630 354 818

Santago, 59 2C ELIZONDO

ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte kamikari
ELIZONDO

Tel.: 948 581 807 - 948 581 853

Martiko
Pol Zabaen, 4/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel.: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Ahateak, adinak eta entzuleak

Martikorekin zu zeu sukaldari.

DENDA ORJUTEGIA ASTELEHENETIK ORTZARALERA

8.30etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Turismoa indartzeko egitasmo berri batean sartu dira Urdazubi eta Zugarramurdiko leizeak

Euskal Herriko leizetako bisitariak batetik bertzera eraman nahi dira

Koro eta Margari

Zugarramurdi eta Urdazubiko leizeak bertze lau leizerekin batera proiektu polit batean sartu dira: *Mugarik gabeko lurpea* izeneko egitasmoan, hain zuzen. Honekin, elkarrekin lan eginez, turistak erakarri nahi dira. Honen berri maiatzaren 9an Sorginen Museoan egin zuten prentsaurrekoan eman zuten leizeetako arduradunek. Horrez gain, aldizkari honetako erreportajearen ere aurkituko dituzue gainerrako xehetasunak.

Ttikientzat antzerkia

Udaberriko Biraren barne, maiatzaren 17an haurrendako pailazoak izan genituen Museoan. Aurkezten zuten lanak *Munduan zehar* zuten ize-

na eta erreazio desberdinak sortu zituen: Oierrekesan zuten berak ez zituela pailazoak maite eta bere amatxorekin kanpora atera behar izan zuten; bere arreba Olaiak, berriz, begi erne-ernee-kin segitu zuten ikuskizuna, Josebiñe eta Onintzak bezala; Ioan eta Loik beren amaren besoetatik ez ziren sobera urrunduz; Julene, Ixiar eta Unai xintxo-xintxo egon ziren. Haien ondoan Rakel eta Paulak interes handiarekin segitu zituzten pailazoen abenturak. Baina beldurra sortu zen eskenatokia Frankenstein munstruoa agertu zenean, eta orduan Gexan izutu eta aitarekin kanpora atera zen. Ibai, berriz, ausarta denez, hantxe gelditu zen Pettan eta Garaxirekin batera. Ba-

dakigu pena handiarekin gelditu zirela bertze batzuk (Maiana, Maddi, Ainhua, Aida, Ihintza...) ezin izan baitzuten etorri ikuskizun hau ikuste-

ra. Baina seguru lagunek kontatuko dietela.

Bisita Urdazubin

Maiatzaren 22an Carmen Valdes Nafarroako

Gobernuko Museoen Zerbitzuko zuzendaria Urdazubin izan zen etorkizunean egin nahi den museo liturgikoaren nondik norakoak ezagutzen.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Lehen Jaunartzea egin dute hiru neska-mutikok Maiatzaren 19an egin zen Lehen Jaunartzea. Urtero herriz txandatu egiten denez, aurten Zugarramurdin egitea tokatu zen. Hortxe ikusten dituzue egun horretako protagonistak: Beñat Etxart, Iraia Jaurena eta Eneko Haldi, Elizargietetan ateratako argazkian.

Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua **NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**ren

Zeuk aukeratzen duzu,
zeuk erabakitzen duzu

can

Proiektu zka.: **14640**

Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

• Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa • Kutxazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Bestela, bete ezazu argitara ematen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegia, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.

SARA

Aldaketa batzuk izanen ditu igandean eginen den Sarako Itzuliak

Ibilbidea ez da gehiago Gaztain Lepotik eta Lehenbizkaitik pasatuko

Xan HARRIAGUE

Axuria Mendi Taldeak Sarako Itzuliaren ibilbidea moldatu du zati batzuetan. Kilometro gehienak lehengo bidetik joanen dira eta hasiera betikoa izanen da. Aurtengoa ez zen usaian bezala Mendekoste Egunean egin, Herri Urratsekin bat egiten zuelako. Antolaitzaileak gibelatzea erabaki zuten eta igandean honetan eginen da.

Plazatik abiatuta, Larrun eta Ibanteli upatu beharko dira, eta hortik aitzinera aldatuko da aurtengo ibilbidea. Lizarrietan, Gaztain Lepo eskuin aldean utzi eta, ibiltariak herriko sareetara joko dute pista batean barna. Handik lehenagoko bidea berreskuratuko dute eta

eguneko hirugarren ton-torra upatuko dute, Axuria, alegia. Urtero bezala, Zugarramurdiko lurretan pasatuko da, eta hango herriko plazaraino jautsi. Sarara itzultzea Behereko Benta eta Gaineko Benta barna eginen da. Baina Galtzagorritegiara arribatzean behera egiteko ordez, Xelkor eta Granadatik Lehenbizkaitira joateko, aurten kaskoan segituko du Hernainborda arte. Hortik behera eginen du Ixtilart aldera, Olabidekobordaren ezkerreko aldean den pista segituz, eta kilometro batzuen buruan abiapuntura itzuliz.

Denetara 45 bat kilometro dira, eta jendeen laguntzeko han hemenka jateko eta eda-

tekoak emanen dituzte. Abiatzea 7:00etan eginen da kiroldegitik, eta parte hartu ahal izateko han berean 12 euro ordaindu beharko dira.

Xiba

Herri Urrats bezperan, Xiba Euskal Herriko jokoen Lapurdiko kanporaketa gibelatu beharizan zuten aro txarrarengatik.

Heldu den ekainaren 7an eginen da Arrangoitzen herriko besten kari. Ea herriko talde bat animatzen den iazko txapela defendatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Atxuri Urdin Seaskaren alde

Atxuri Urdin Sarako Errealeko Peñak finalerdian galdu zuen Senpereko ikastolak antolatutako futbol txapelketan. Bertan bildudatko sos guzia Seaskako Integrazio Batzordeari eman zitzaion. Joan den larunbatean, herriko ikastolak helburu bera zuen Dantza Gaua antolatu zuen. Ordu ttikitan bazen ere, saltsan, Afrikako dantzetan eta muxikoetan trebatzeko aukera izan zen.

SOULE
 hileta artea
 Tfnoa. 948 453 444
 Mug.: 629 659 583
 ARIZKUN




ARMUA JATEA

 T. 948 399 131
 Zugarramurdiko errep. 3 km
 URDAGURI

MON OSTATVA

 Dantzarineatik
 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - VRDAZVBI
 Egunero irekia 10:30etik 02:30era

m bentamiguel
 denda, jatebrea eta ostalua
 Ongi zaindutako sukaldaritza
 Menuak aukeran
 Tabakoa
 Likorrak
 Janaridenda
 Urdaitegia
 Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209



HERRIKO ETXENO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
 T: 0559542519
 Maixen eta Véronique
SARA



LA VILLA
JATEA
 ICANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzen 2008. urteko deialdia onesten duen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 51* zk. 2008/04/23 1220/2008 EBAZPENA, apirilaren 9koa, *Enpresa zuzendari nagusiak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/51/Anuncio-20/

Laguntza eskaera bakarraren deialdiari buruzko otsailaren 1eko 38/2008 Foru Agindua aldatzen duen Foru Agindua, tomate eraldatuaren laguntza elkartua sartzeko eta zenbait fruta eta barazki ekoizten dituzten nekazariak ordainketa bakarraren araubidean onartzeko.

Non argitaratua: *NAO 50* zk. 2008/04/21 123/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa, *Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/50/Anuncio-2/

ETEentzako, mikroenpresentzako eta langile autonomoentzako IKT di-

rulaguntzen 2008. urteko deialdia onesten duen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 61* zk. 2008/05/16 1370/2008 EBAZPENA, apirilaren 25ekoa, *Enpresa zuzendari nagusiak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/61/Anuncio-19/

"Nekazaritzako ustiategiak modernizatzea" izeneko neurrian onetsitako laguntzen ondoriozko konpromisoez gain konpromiso gehiago eta handiagoak sinatzen dituzten elkar-teei laguntzak emateko arauak ezar-tzen dituen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 62* zk. 2008/05/19 139/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, *Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/62/Anuncio-2/

Nafarroan euskara garatzeko kultu-ra jarduerak egiteko laguntzetarako

deialdia, 2008. urtekoa onesten duen Ebazpena (40002893 kontabiitate espedienteak).

Non argitaratua: *NAO 62* zk. 2008/05/19 11/2008 EBAZPENA, maiatzaren 9koa, *Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/62/Anuncio-3

Ezintasunak dituzten pertsonen arloan laguntza teknikoak, arreta espezializatueterako laguntzak eta zentro propio eta itunduetan ingresaturik dauden pertsonentzako berariazko laguntzak arautuko dituzten kudeaketa irizpideak onesten dituen Ebazpena. 2008. urteari begira onartutakoa da.


Non argitaratua: *NAO 62* zk. 2008/05/19 1060/2008 EBAZPENA, apirilaren 8koa, *Nafarroako Mendekotasun Agentziako zuzendari kudeatzaileak emana*.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/62/Anuncio-4/

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da.
Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

Urak dakarrena, urak daroa

Rekordatorioak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatuak

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58 • www.ttipi.net



EZKONTZAK

Gorka Altzugarai Pierola eta **Soraya Contreras Fernandez**, Almandozkoa eta Villaconejosekoa (Madril), apirilaren 19an Almandozen.

Alexis Villanueva Negrete eta **Jasone Iriarte Zubieta**, Berakoak, maiatzaren 3an Beran.

Miguel Angel Altzuguren Errandonea eta **Cristina Florez Riol**, Berakoak, maiatzaren 3an Beran.

Xabier Almandoz Aiertza eta **Eli Urbisondo Sein**, Igantzikoak, maiatzaren 10ean Igantzin.

Asier Santesteban eta **Itziar Gomez**, Irungoak, maiatzaren 17an, Igantzin.



SORTZEAK

Maddalen Arenas Etxeberria, Arantzakoa, maiatzaren 16an.

Oihan Mujika Garnika, Arizkungoa, maiatzaren 10ean.

Axular Daroka Iriarte, Berakoak, maiatzaren 9an.

Olaia Cerbiño Vicente, Leitzakoa, maiatzaren 3an.

Maddi Zubieta Eneverreaga, Lesakakoa, maiatzaren 8an.

Alex Urrosolo Elgorriaga, Lesakakoa, maiatzaren 5ean.

Hegoi Andresena Grajirena, Legasakoa, maiatzaren 9an.



HERIOTZAK

Antton Urrutia Barrenetxe, Zugarramurdikoa, maiatzaren 8an, 63 urte.

Manuel Gomez Irtzoki, Elizondokoa, maiatzaren 10ean, 88 urte.

Francisco Aizpuru Perurena, Goizuetakoa, apirilaren 11n, 86 urte.

Ines Elgorriaga Irtzoki, Berakoa, maiatzaren 9an, 97 urte.

Teresa Linazasoro Igoa, Berakoa, maiatzaren 18an, 92 urte.

Atanasia Mikelarena Bera, Iturengoa, maiatzaren 13an, 94 urte.

Manuel Arretxea Antzizar, Doneztebekoa, maiatzaren 9an, 74 urte.

Pilar Aranburu Iturriza, Berakoa, maiatzaren 13an, 97 urte.

Juan Tomas Etxabide Igantzi, Lesakakoa, maiatzaren 14an, 56 urte.

Joxe Pikabea Goia, Alkaiagakoa, maiatzaren 15ean, 80 urte.

Milagros Sorozabal Alberro, Doneztebekoa, maiatzaren 15ean, 77 urte.

Alfonso Etxeberria Mitxelena, Arantzakoa, maiatzaren 16an, 72 urte.

Andde Larzabal, Sarakoa, maiatzaren 6an.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



Aritz PLAZA ARNAL
'PLOX'

Elizondokoa, 2006ko ekainaren 2an

II. URTEURRENA

Gauetz, zerurantz begiratzen dugunean,
izar eder bat ikusten dugu.
Zu zara Aritz, zure dizdirarekin
gure bizia argitzen segitzen duzu
aurrera segitzeko!!

MAITE ZAITUGU!!

AMA, AITA ETA UNAI



Joseba LARRALDE
Berako txirrindulari afizionatua

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Aitor AROTZENA

Urteak daramazki Joseba Larralde txirrindularitzan. 9 urte zituela Gure Txokoan hasi eta afizionatu bitarteko bidea egin du. «Txirrindularitzan konpetitzen 9 urterekin hasi nintzen, kasualitatez. Ni hemen ibiltzen nintzen bueltaka eta Lesakako lehen-gusu bat hasia zen karreratan konpetitzen. Ateratzeko animatu ninduen, lehenbiziko karrerara joan eta irabazteko suertea izan nuen. Gustatu zitzaidan eta orain arte, pixkanaka-pixkanaka joan gara, urtetik urtera maila handiagoa izaten da». Tikitan pilotan ere aritzen zen, baina azkenean txirrindularitza aukeratu zuen: «Pilotan eta bizikletan, bietan aritzen nintzen ttikitan, baina aukera egin behar duzun adin batera ailegatzen zara. Bizikleta gehiago gustatzen zitzaidan, probak irabazten nituen eta horrek motibatu zidan bizikletan segitzeko».

Hiru urte ditu afizionatutan, lehenbizikoa Iruñeko Graficas Ona taldean eta azken biak Bidelan-Kirolgi taldean eta urtero urrats bat ematen

duela iruditzen zaio: «Hasieran kostatzen zaizu, bertzeek martxa hartua dute eta nik ez nuen ideia aunitzik. Hemen inguruan ez dago prestatzeko lekurik ere eta Gipuzkoa aldean afizio gehiago dago. Talde honetan hobetzen joan naiz, urtero zerbait berria ikasten da».

AFIZIONATUETAN GARAIPENA FALTA ETA PROFESIONALETARA SALTO EGITEKO AMETSA

Hiru urteotan ongi dabil Joseba Larralde, postu onak egin ditu, baina oraindik ez du garaipenik lortu. Beharbada horixe da duen arantzatxoa. «Ilusioa horrek egiten dizu, lasterke- ta irabazteak, hori izaten da helburua, baina oraindik ez dut lortu. Espero dut noizbait ailegatuko dela, bai-

«Lagunarteko afari eta besta horiek kendu dizkit bizikletak, baina satisfakzio handiak ere eman dizkit, gauzak gehiago baloratzen ikasten duzu»

«Profesionaletara salto egitea zaila da, baina obsesionatu gabe saiatuko naiz»

- Maiatzaren 11n Obanosen Nafarroako afizionatu mailako txirrindularitza txapelketa erabaki zen. Lasterketan bigarren gelditu zen Joseba Larralde, Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulari beratarra. Elite mailan ezin izan zuen irabazi, baina 22 urte dituen, 23 urtez beheitiko Nafarroako txapeldunaren maillota lortu zuen.
- Bezperan akautu zen Bidasoako Itzulian zazpigarren izan zen sailkapen orokorrean, eta lehendabiziko euskaldunaren maillota jantzi zuen.
- Aitzinera begira, hastear dagoen Nafarroako Itzulia dauka begibistan Joseba Larralde, nahiz eta gure ingurutik ez den etaparik pasatuko.

na erregulartasuna mantentzea ere ongi dago». Afizionatutan ari diren txirrindularien ametsa profesionaletara salto egitea da eta horixe da Larralderen itxaropena ere. «Helburua horixe da, eta ilusiorik gehiena horrek egiten dit. Zaila da baina saiatuko gara, hori bai, obsesionatu gabe». Txirrindularitza gogorra dela jakina da. Lagunarteko hainbat ordu kendu badizkio ere, satisfakzio handiak ere eman dizkiola uste du Larralde: «Kentzen dizkizu lagunarteko afari eta besta horiek, astebururo karrerak dituzu, larunbat eta igandetan, eta aitzinean ibili nahi baduzu zaindu beharra dago. Eman, gauza aunitz eman dizkit, satisfakzio handiak. Gauzak baloratzen ere ikasten duzu...». Beti taldekideak laguntzeko prest izanda ere, bere burua txirrindulari konpletotzat jo du Larralde. «Momentuan txirrindulari konpletota naizela iruditzen zait. Taldekoei lagundu behar denean taldekideak lagundu, etapa bila joan behar denean etapa bila... Oraindik ez dut lortu, baina saiatu bederen...».

SOKATIRA

Amaiurko emakumezkoek irabazi dute Nafarroako 4x4 txapelketa

Emakumezkoetan Beti Gazte hirugarren izan da, eta gizonezkoetan Amaiur C bigarren

ttipi-ttapa

Hiru jardunaldi jokatu ondotik, maiatzaren 10ean bukatu zen Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketa, Iruñeko Errotxapea auzoan. Emakumezkoetan 260 kiloko kategorian aritu ziren, eta txapela aurtentzako txapelketan lehen aldiz parte hartu duen eta estreinaldi bikaina egin duen Amaiurko taldearentzat izan zen. Gizonezkoetan 310 kilokoan aritu ziren, eta Be-

rriozar Brentzat izan zen garaipena.

Bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan, azken saiorarte mantendu zen emozioa, ez baitzegoen erabat erabakita txapelak nork jantziko zituen. Nesketan tiraldi parekatuak izan ziren, Amaiurrek, Sakanak eta Lesakako Beti Gaztek azken jardunaldian berdindu egin baitzuten. Halere, Amaiurko taldeak aitzinetik bi puntuko aldea



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Estreinaldi bikaina egin dute Amaiur sokatira taldeko neskek Nafarroako Lauko Txapelketan: lehen aldiz parte hartu eta gainera, irabazi.

kendua zion Sakanari eta horrenbertez, garaipena Baztanera ekarri zuten. Hirugarren postua talde lesakarrantzat izan zen. Lauugarren eta bortzgarren Berriozar A eta B geldi-

tu ziren, hurrenez hurren, eta seigarren Iruñeko Txantrea.

Gizonezkoetan, berriz, azken saioaren faltan, Berriozar Bk puntu eta erdiko aldea ateratzen zion Amaiur Cri.

Baina hala ere, beragailendu zen. Amaiur C bigarren izan zen; Berriozar A hirugarren; Amaiur A eta B laugarren eta bortzgarren, hurrenez hurren, eta Txantrea seigarren.

PILOTA

Igande honetan erabakiko da Oinatz Bengoetxeak zein izanen duen arerio finalean

Bigarren mailako finala jokatu du Larralde lesakarrak

ttipi-ttapa

Oinatz Bengoetxea leitzarrak jokatu du Esku Pilota Enpresen Ligak antolatutako buruz buruko pilota txapelketa nagusiaren finala. Finalerdietan, Asier Olaizola goizuetarraren kontra jokatu duen partida gogorren 22 eta 16 irabazi ondotik lortu zuen finalerako txartela. Bientzat lehen finalerdia zen eta bien helburua, lehen aldiz fi-

nalean izatea zen. Lehenbiziko tantuak Olaizolaren alde erori baziren ere, azkenean, garaipena Leitzara jovan zen.

Finaleko arerioa zein izanen duen, ordea, oraindik erabaki gabe dago. Abel Barriola leitzarrak eta Sebastien Gonzalez azkaindarrak jokatu beharreko finalerdia astebete atzeratu zuten, lapurtarraren lesioaren ondorioz, eta

igande honetan, ekainak 1, jokatu da. Finala ere gibeleratua etorriko da, beraz, ekainaren 15ean izanen da.

BIGARRIN MAILAN LARRALDE

Bigarren mailako buruz buruko txapelketan ere eskualdeko ordezkaria izanen dugu finalean. Iñaki Larralde lesakarrak 22 eta 8 irabazi zion Urrizelkiri eta arazo haundirik gabe lor-



ARTXIBOA

Buruz buruko lehen finala izanen du Bengoetxeak.

tu zuen finalerako txartela. Finala heldu den larunbatean, ekainak 7, jokatu du Amorebie-

tako pilotalekuan, Julen Retegiren kontra. Honak Iker Arretxe gaitzuen finalerdian.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttiipi.net (agenda)

HITZALDIAK

LESAKA

Maiatzaren 20tik ekainaren 6ra, Oinarrizko trebetasunak eta bizipen emozionala seme-alaben hezkuntzan hitzaldia. 10:00etatik 12:00etara Kasinon, Irain Guraso Eskolak antolatuta.

BERA

Ekainaren 5ean, Memoria Historikoari berreskuratzeko ahaleginak gaiari buruz hitzaldia, Iñaki Egañaren eskutik. 19:30ean Liburutegian.

ETXALAR

Ekainaren 4an, Mendiari buruzko hitzaldia, Gorka Gorospe Orgi Elkarteko kudeatzailearen eskutik. 19:00etan Kultur Etxean.
Ekainaren 7an, Etxalarko txoriei buruzko hitzaldia eskainiko du Mikel Etxaniz Itsas-Enara Ornitologia Elkarteko kideak. 10:00etan Kultur Etxean.

TAILERRAK

LESAKA

Maiatzaren 31n, haurrentzako esku tailerra Arranak antolatuta. 11:00etan Komentu ondoko zelaian.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Ekainaren 8a bitarte, Artea Oinez 08 erakusketa Arizkunenean. Nafarroa Oinez dela-eta urtero antolatzen den erakusketa. Asteartetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.

FILMAK

LEGASA

Ekainaren 13an, *Mozart txakurra* filma Udaberriko Biraren barne, 22:00etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



Etxalarko Gasna eta Artisauen Feria ttiipi-ttapa telebistan

EKAINAREN 2TIK AITZINERA

12 urte pasatu dira Etxalarren Gasna eta Artisauen Feria antolatzen hasi zirenetik. Geroztik urteen joanean aunitz indartu den besta da, Etxalartik eta kanpotik ere hurbiltzen baita jendea. **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** aitzineko aldietan ez du hutsik egin besta egun honetan, eta aurten ere Etxalarren izanen da igande honetan, goizetik hasita haurrentzako tailerrak, artisauen erakusketak, herriko trikitilarien saioa, gasna lehiaketako sari banaketako eta bertze irudirik ikusgarrienak biltzen. Hori guztia astelehenean izanen da ikusgai. Baina horrez gain, bertze herrietako ekitaldiak ere jasoko ditu **TTIPI-TTAPA**, asteburu mugitua izanen baita oraingo hau. Hala, larunbat honetan Donezteben egiten diren 4x4 auto trialeko eta Errekaren Eguneko irudiak ikusgai paratuko dira telebistanastelehenetik aitzinera.

JESUS M^a SEINEKIN KONTU KONTARI Hagitz bertzelako gaia landuko dute ekainaren 3an *Kontu Kontari* saioan. Igantzi aldera jo, eta saskiak egiten urteak daramatzan Jesus M^a Seinekin egonen dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO** lankideak. Horrez gain, ekainaren 4an Gorraizen egiten den Arkupeak-en omenaldiko irudiak ere bilduko dira.

JESUS M^a SEINEKIN KONTU KONTARI Hagitz bertzelako gaia landuko dute ekainaren 3an *Kontu Kontari* saioan. Igantzi aldera jo, eta saskiak egiten urteak daramatzan Jesus M^a Seinekin egonen dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO** lankideak. Horrez gain, ekainaren 4an Gorraizen egiten den Arkupeak-en omenaldiko irudiak ere bilduko dira.

DISKAK



Pagotxa

KUPELA

ELKAR, 2008

Erromeria giroko talde erregea dugu *Kupela* taldea, zuzenean zein disko lanetan zapore eta grazia berezia jartzen asmatu izan baitute orain arte. Diska honetan berri ere asmatu dute publiko zabalarekin. Alde batetik, alaitasun motiboak erruz sortzen dituzte eta, bertetik, trikitixaren ahalari aire freskoak eta berrizaleak ekartzen dizkiote. *Kupelak* antuaren *remix* dantzagarri bat ere aurkeztu dute diskaren osagarri gisa, Kaki Arkarazoren eskutik. *Pagotxa* du izenburu lan berriaketa 14 kantuz osatua dago. Lehenengoan Getariako txakolinaren goraiapamena egiten da; bertze bat Kuku-herri auzoaren omenegina da; eta bertze bat Urkiolako San Antonioren gainean. Anjel Larrañaga da ahotsa eta panderoa, Xabier Alberdi Zabaletrikitixa eta Juan Ezenarro Berastegi perkusionista.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (maiatzaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 22,00 € (-3,00)

Zerri gizena
1,120 € kilo. (=)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (+0,050)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,01 (-0,03)

1.koa 3,71 (-0,03)

2.koa 3,05 (-0,09)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,11 (-0,03)

1.koa 3,81 (-0,03)

2.koa 3,15 (-0,09)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 198,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,30/6,10

8-10 kilokoak: 4,40/4,90

JAKIN BEHARREKOAK

Egiten ari diren etxe bateko erosleari ordaindu duenaren abala eskatzeko aholkatu du Irachek

Promotoreak obrak egiteko baimena duela ziurtatu behar du

Etxebizitza baten erosketa bizitzan egiten den inbertsiorik haundiena izaten da jende aunitzentsat, eta kasurik gehienetan erosleek urteak behar izaten dituzte ordaintzeko. Baina oraindik orain, gai horretan ezjakintasuna haundia dela azpimarratu du Irache Kontsumitzaileen Elkarteak: «erosleek ez dituzte ongi ezagutzen euren eskubi-deak».

Agerian dago inmobiliaria enpresa haundienak krisian daudela. Egoera horrek arazoak sor ditzake —eta sortzen ditu—, eta kontsumitzailea izan daiteke kaltetuetako bat. Halakoak saiheste aldera, erosleak ordaindu duenarekin abala eskatzeko eskubide osoa duela ohartarazi du Irache Kontsumitzaileen El-



Etxebizitzaren merkatua krisian dago azken aldian.

karteak. Hartara, promotoreak kiebra josten baldin badu, babesteko balioko dio. Abala beti eskatzeko aholkatu dute Irachetik, etxebizitza ez eraikitzekotan, ez bukatzekotan edo gehiegi gibeleratzen, erosleari ordaindu duena bueltan jasotzeko eskubidea bermatuko baitio dokumentu horrek.

Legearen arabera, promotorea jasotzen duen kantitatea itzultzera behartua dago, garaian garaiko interesak kontuan hartuz gainera. Gisa berean, eraikitzen ari diren etxe baten ordainketak bertzelako kontu korrante batean egitea gomendatu du Kontsumitzaileen Elkarteak, bertez ondasunetatik at dagoen kontuan, alegia.

Azken aholku gisa, eraikitzen ari diren etxe berri baten salerosketaren kontratua sinatu aitzinetik, promotoreak obrak egiteko baimena duela ziurtatzearen beharra ere nabarmendu dute Irachetik, eta kontratuan etxea noiz entregatuko den zehaztu dadila ere bai, gaizki ulertuak saiheste aldera.

LIBURUAK



Elurra ezin da erosi

Gari BERSALUZE

TXALAPARTA, 2008

Postaletan ezin ederragoa agertzen den herri horietakoa da Kaiomendi. Azken urteotan, ordea, zuhaitzak moztu eta kablez bete dituzte mendiak, burdinazko dorre handiekin batera, elurrarekin iristen diren eskiatzaileak ibil daitezen. Moilan, berriz, aisialdirako belaontzi zuriak nabarmentzen dira kirol portua eraiki dutenetik, eta parkeak eta zelaiak zeuden lekuan etxe garestiak ikusten dira orain. Haurrek ez dute kalean jolas-

teko lekurik, auzokideak ez dira joaten Rafael zaharraren okindegira inguruan bertez bi zabaldu dituztenetik, eta olatuaren artean bodyboard berriekin ibiltzen direnek iseka egiten diete egurrezko txanperoak dituzten lagunei. Azken batean, gaur egungo gizartearen nagusitzen ari den desarrolismoarekin lotutako azpiegiturei eta hainbat jokabideri kritika egin die Gari Berasaluzek eta Patxi Gallegok egin ditu liburuko ilustrazioak.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Ekainaren 1ean, Iruñera ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak Elkarteak.

Ekainaren 8an, Mendaurren mendirteera, Baztango Mendigoizaleak-en eskutik.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Maiatzaren 31n, Mikel Urdangarin eta Gaztelu Abesbatzaren kontzertua, 23:00etan Lur dantzalekuan.

Ekainaren 7an, Rumba Catalana Roots Papawa taldearen kontzertua, 00:30ean Lur Aretoan.

AUTO TRIALAK

DONEZTEBE

Maiatzaren 31n, Doneztebeko I. Auto Triala. 14:30ean Aparan aldean.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE

Maiatzaren 31n, Errekaren Eguna. Xehetasun gehiago 16. orrialdean.

NARBARTE

Ekainaren 7an, Bertizaranako Eguna. Xehetasunak 17. orrialdean.

GORRAIZ

Ekainaren 4an, Arkupeak Elkartearen besta. Xehetasun gehiago 19. orrialdean.

ANTZERKIAK

ITUREN

Ekainaren 8an, *Bota patsa!* antzezlan, 18:00etan.

ETXALAR

Ekainaren 8an, Kuko, Truko eta Bolenwaiderren *Taulara* antzezlan, 15:30ean.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuo pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuo pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
BERA-LESACA.
- 2. eskuo pisuak eta lur eremuak salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuo pisuak eta lur eremuak salgai.
IGANTZI.
- Lur eremua salgai.
SUNBILLA.
- Familia bakarreko etxebizitzak salgai.
DONEZTEBE.
- Partzela urbanizatua salgai.
ELIZONDO.
- Partzela urbanizatua salgai.
DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.
- Pisuak, apartamentuak, baserriak, etxeak, bordak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberri beharrekoko.
PROMOZIO BERRIAK.
ARIZKUN.
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitzak lur eremuarekin.
IRAIZOTZ.
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trasteroa eta aparkalekua.
AGOITZ.
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- Nabe eta lur eremu industrialak.
ORONOZ-MUGAIRI.
- Bi familiako etxebizitzak lur eremuarekin.
ELIZONDO.
- Adosatua lorategiarekin.
NARBARTE.
- 2 eta 3 gelako pisuak, trasteleku eta aparkalekuarekin.
INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948 580705
www.ados-inmobiliaria.com

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.
IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.
ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.
Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK 101 Saldu

LESACA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziarekin

andueza
NARBARTE:
- 85m²ko pisuak, 20m²ko garajeak, 100m²ko barazkarekin.
30.500.000 Pta.
GAZTELU:
- Bi familiako etxebizitza salgai. 300m²ko lorategiarekin. 42.000.000 Pta.
ORONOZ:
- Estreintzeko dagoen apartamentua salgai.
150.000€
- 140m²ko pisuak salgai.
120.000€
- Estreintzeko dagoen 115m² etxebizitza batekin behiko solairua salgai.
Lorategiarekin 216.000€
ELIZONDO:
- 130m²ko 3 traxet salgai.
Solairu bakarrekoak eskalerarik gabekoak.
Oso erosokoak. 400m²ko lur eremuarekin.
LEGASA:
- LEGASA 88m²ko pisuak salgai. 3 logela, komuna eta 3 baloi. Diseinua orain duela urte bat berria. 26.500.000 Pta.
BASERRIAK ERE SALGAI
T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87
www.habitat24.com/andueza

salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



ZUGARRAMURDI. Bifamiliarentzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia.

Baztango
promoción inmobiliaria
PROMOZIO BERRIAK:
BERA: Zaharberritutako eraikin tradizionalan, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster emanen dira.
DONEZTEBE: Herrigunean 1 eta 2 logeletako etxebizitzaren promozioa eginen da laster, gutiz eraberritutako eraikinean. Erreserbatzeko zerrenda irekia.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu pertsonalizaturako aukera.
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa eginen da laster, gutiz eraberritutako eraikinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.
OBRATAN DAUDEN PROMOZIOAK:
ETXALAR: Traxetak lur eremuarekin
LESACA: Pisuak igogailuarekin.
BIGARREN ESKUKOAK:
BERA: Herrigunean 70 m², 73 m², 83 m² eta 97 m²ko pisuak, egoera onean eta igogailuarekin.
BERA: 504 m², 530 m² eta 120 m²ko etxeak, lurarekin.
BERA: Etxebizitza osoak herrigunean eta baserriak baditugu.
LESACA: Herrigunean 80 m², 88 m², 109 m² eta 212m²ko pisuak. Gutiz zaharberrituak eta bertzeak sartzeko prest.
ETXALAR: Herrigunean 189 m²ko pisua, lur eremuarekin. Bi etxebizitza egiteko aukerarekin.
ETXALAR: Zaharberritu beharreko baserria, lur eremuarekin.
ARANTZA: 110 m²ko estreinatua gabeko atkoa, 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela.
SUNBILLA: Familia bakarreko 308 m²ko eta 110 m²ko etxebizitzak, biak lur eremuarekin.
SUNBILLA: Zaharberritutako baserria, lur eremuarekin. Bista paregabeak.
DONEZTEBE: Herrigunean 72 m²ko pisua eta 72 m²ko bajera.
NARBARTE: 66 m²ko pisua, 180 m²ko lorategiarekin, eta bertzea 79 m²ko pisua.
ELIZONDO: 59 m²ko pisua, 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
EZ IZAN ZALANTZARIK ETA DEITU!
INFORMA ZAITEZ KONPROMISORIK GABE.
LUR EREMUAK:
Lur urbanoak: BERAn, ETXALARren, SUNBILLAn eta GAZTELUAn.
Lur ez urbanoak: BERAn, SUNBILLAn, DONAMARIAn eta BAZTANen.
Katonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra
Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

Doneztebe. Zuzenbidean
izaten 119 eremuak dituen
3. etxela, 2. etxela eta
1. etxela. Etxe berriak eta
1. etxela. 630 948271

295.000 euro. ☎615 744433.

IRUN. Hiri erdialdean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea tresna guztiekin, bainugela, berokuntza eta igogailua. ☎637 559152.

DONEZTEBE INGURUAN. Etxe adosatu polit bat salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

ETXALAR. 180m²ko pisua

salgai, eraikin tradizionalan. Egoera onean. ☎609 708797/ 948 630552.

ELIZONDO. Herrigunean apartamentua salgai. Prezio negoziagarria. ☎609 708797/ 948 630552.

LESACA. Herrigunean zaharberritu beharreko etxebizitza salgai. Prezio negoziagarria. ☎609 708797/ 948 630552.

LEITZA. Pisu salgai, zazpi pisutako etxean. ☎635 714237.

BERA. 90m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, jangela, sukaldea eta igogailua. Kapritxora zahar-

berritua. Prezio interesgarria. Egiazko interesa dutenek bakarrik deitu. **☎629612614.**

DONEZTEBE. Pisua salgai. 26 milioi pezeta. **☎607978656.**
DONEZTEBE. Zazpigarutze auzoan 100m²ko pisua salgai. **☎639 184210.**

ETXEBIZITZAK 103 Errentan emateko

LESAKA. Pisua errentan emateko. Lau logela eta denek kanpora ematen dute. **☎628 329762.**

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. Igogailua, berogailua eta 3 logela. **☎659 963960.**

DONEZTEBE. Pisu mogleztatua errentan emateko. **☎699 798207.**

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartzeko

DONOSTIA. Antiguoa auzoan lau neska ikasleko pisua errentan hartu nahi dute. **☎690 766952.**

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. **☎659 609678.**

TWIN PEAKS. Familia eskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantzisko-ko Unibertsitatearen ondoan, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebista... *aupasf@gmail.com.*

IRUN. Hirigunean ostatua salgai, zabalik dagoen dantzaleku baten ondoan. **☎686 062963.**

BERA. 60m²ko ganbara eta 47m²ko garajea salgai. **☎607890923.**

DONEZTEBE. 70m²ko ba-

jera salgai, 99.500 eurotan. **☎618 881924.**

LANA 301 Eskariak

BAZTAN aldean emakume batek adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egiten luke. **☎690 941799.**

LANA 302 Eskaintzak

Trailer batean ibiltzeko **langilea** behar da, lantegi barreranean egunean zazpi ordu lan egiteko eta asteburuak libre. Bortziarik edo inguru-koa izan dadila ahal bada. **☎630 989415.**

SUNBILLA. Gidabaimena duen pertsona bat behar da asteburuetan banaketa-lanak egiteko. **☎690 961616.**

BERA. Benta Migelen mutil bat behar da biltegian eta dendan lanean aritzeko, urte osorako. **☎948 631394.**

ELIZONDO. Pertsona bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. **☎680243027.**

BERA. Auzoa jabetxean sukaldari laguntzailea behar da. **☎654385363.**

BERA. Zalain jabetxean sukaldari laguntzailea behar da. **☎948 630967.**

OITZ. Fregaderarako langilea eta zerbitzaria behar dira igandetan lan egiteko. **☎948 451951.**

ANTSOAIN. Ile-apaintzaile ofiziala behar da. Baldintza onak. **☎649 457183.**

MOTORRA 501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urriakoa. **☎650 948330.**

125 cc motoa erosiko nuke, KTM markakoa nahia-go. Eta **Motor Hispania** markakoa salgai, 50 cc eta

urtebetekoa. **☎948599267.**
Nissan Almera beltza 2.2 dci salgai, 112 zaldikoa. 4 urte eta hagitz egoera onean. **☎679 381091 (18:00-etatik aitzinera deitu).**

Volkswagen Polo GT auzo salgai, 90 zaldi. NA-AJ. Egoera onean, 108.000 km. 900 euro. **☎679 419321.**

Seat Leon TDI salgai, 110 zaldikoa. Egoera onean eta 7.500 eurotan. **☎620011246.**

Peugeot 306 salgai, 1995-koa, 200.000 kilometroekin. Egoera onean. 2.500 eurotan. **☎678 946813.**



MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

ESKAINITZAK
Traffic 9 plazakoa, 2007koa
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Espace 2.0 DCI, KM0
Kangoo 1.5 DCI, 2007koa
Suzuki Santana, 2006koa

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Clio Confort 1.5 DCI, Citroen C-15 1.8 D, Peugeot 307 1.6, Laguna 1.8, Clio 1.2, Laguna 1.9 DCI 120 CV.

ANIMALIAK

601 Emateko

Pastor-aleman arrazako

zakurkumeak oparitzeko. **☎948 630048.**

Urte bateko **ardi zakurra** oparitzeko. **☎696 254741.**
Katakumeak oparitzeko. Ama ehiztari ona. **☎948 451787.**

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Setter arrazako **hiru zakurkume** salgai. Maiatzaren 22an hiru hilabete eginen dituzte. Txertatuak eta parasituak kenduak. 200 euro. **☎661 821645.**

3 urteko **2 ahari** mutur gorri salgai. Bat adarrarekin, bertzeagabe. **☎948451469.**
Cocker arrazako **hiru zakurkume** salgai. Marroiak eta beltzak. Bi hilabete eta erdi. **☎948 387016.**

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

PSP Play Station portatila desagertu da Zubiondo jabetxean maiatzaren 18an. Agertuz gero, eskertuko da. **☎948 631121.**

LESAKA. Otsango auzoan betaurreko graduatuak aurkitu dira. Urdinak soka berdearekin. **☎626 746898.**

DENETARIK 702 Salerosketak

Pianoa salgai, Kawai mar-

kakoa. Oso ongi zaindua, urtero errebisioak pasatua. **☎687 957072.**

Sagardoa egiteko 60 zentimetroko **dolarea** eta 150 litroko **barrika** salgai. **☎620 208874 (20:00-22:00).**

John Deere markako **enpakadora** eta **belarra biltzekoa** salgai. **☎649 575549 (goizez deitu).**

Soropil-mozteko (cortacesped) **traktorea** salgai, Husqvarna 14 h.p. markakoa, ekonomikoa. **☎610 578591.**

Logela salgai: 1,05 metroko ohea koltxoia eta somier-rarekin; 2 gau-mahai eta idaz-mahaia bere apalarekin. Gaztainarekin egina. **☎948 450950.**

MERKATU TTIKIA

zure iragarkia 3 tokitan

Aldizkaria
Telebista
Internet

8€

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

Konkulta ondestegia: Petatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordue eskatu

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetes · Ainsa · Zizareak · Larri azaleko alergiak · Boruka mina
Ginon izerdia · Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:
Miopia · Bista ohertua · Estrabismoa · Begi horreak kataraktak

GIHARRE ARAZOAK:
Bixartza · Artritis · Erreuma · Artrisia · Lumbalgia · Bihurdurak · etab


Telefonoa: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 · IRUN

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.


www.ttipi.net



Irungo **UNAX PERURENA VALEROK** urtea beteko du maiatzaren 24an. Zorionak Iturengo amatxi, izabosaba eta Aizoaingo izaba-osaba, Janire eta Iraiaren partetik.



Irungo **UNAX PERURENA VALEROK** urtea beteko du maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko terremotoari atta, ama eta Narrairen partetik.




MIKEL ITURRIA etxalartarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 25ean. Zorionak potxolo eta prestatu belarritxo hori 3 tiraldi jasotzeko. Muxuak atta, ama eta Olaia.



Zorionak **MIKEL** indioari Berako eta Etxalarko ataxi-amatxien partetik. Egun polita pasa eza zu eta hiru bersarkada haundi.



JOSU ALTZUGARAI ETXEBESTE (Bera-Lesaka) 5 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Zorionak familiaren partetik.



KENAİK ekainaren 1ean 3 urte beteko ditu. Zorionak txapeldun!!! Muxu pila bat atta, ama eta Ehanen partetik.



EKINE SALGADO lesakarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak bitxo!!! Eta muxu haundi bat atta eta amaren partetik.



Oitzko **AIMAR ARIZTEGİK** 5 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak Sara, Agurne, Juanjo eta tia Rosaren partetik.



Zorionak **RAUL** eta **IZASKUN!** Ailegatu da eguna! Ongi pasa eta zoriontsuak izan!



Doneztebeko **EKİK** 2 urte beteko ditu. Zorionak tiki apata, Xabi eta Leire eta muxu haundi haundi pila Argoitzen partetik.



ELOI SANCHEZ ARAKUES lesakarrak maiatzaren 16an 3 urte bete ditu. Auniz urtez eta muxu haundi bat etxeko partetik.



ELOI SANCHEZ ARAKUES lesakarrak maiatzaren 16an 3 urte bete ditu. Auniz urtez eta muxu haundi bat etxeko partetik.



IMANOL BIURRENA ORTIZEK 3 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu pila bat familiaren partetik. Segi horren alai!



Elizondoko **IRAITZ MENDIBURU TELLETXEAK** urtea bete du maiatzaren 26an. Zorionak bitxito familia guztiaren eta bereziki Olaia- ren partetik.



MAIALEN BARAIBAR GORTARI oronoztarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak gure sorginari eta muxu haundi bat etxeko partetik.



MAIALEN BARAIBAR GORTARI oronoztarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat Aitor, Olaia eta Eiderren partetik.



NEREA eta **OIHANE** irazitzeko neskatxa polit horiek maiatzaren 14an eta 15ean 18 eta 17 urte bete dituzte. Zuen Irungo lagunaren partetik auniz urtez! Maite zaituztet pexoxas! Moxorro!



EKI ERASUN EZKURRA doneztebarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak attatto eta amatoren partetik.



EIDER URRUTIA TELLETXEAK 8 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Auniz urtez Xabier, atta, ama eta Elordiko familiaren partetik.



Zubietako **JONEK** 3 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak aita, ama eta Landerren partetik. Zorionak pottotti.



Irungo **UNAİK** eta Zubietako **JONEK** hiruna urte beteko dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Zorionak Xune, Mirari, Aimar eta Landerren partetik. Zorionak saltseroak!!



Beintza-Labaiengo **KONSUELOK** eta **KARMENEK** maiatzaren 16an eta 19an urteak bete dituzte. Zorionak familia guzti-guztiaren partetik. A ze sorpresa!!



IMANOLEK eta **MIGUELEK** 3 urte bete dituzte maiatzaren 18an eta 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



NEREA AGESTA MARTIKORENA doneztebarrak urtea bete du maiatzaren 14an. Zorionak eta muxu auniz anaia Oier eta familiaren partetik.



Erratzuko **NAROA BIKONDO JAURENEAK** 3 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.




XUBAN ELIZONDO GOIA lesakarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak etxeko gure kukuxuari!



Gerendiango **MARIA DOMEÑO SARRATEAK** ekainaren 1ean beteko ditu 7 urte. Muxuak eta zorionak bere familia guztiaren partetik.



OIHAN MARTINEZ LEIZA. Izautzen dut mutiko bat guapoa eta majoa, ipuin harri-garriak kontatzen dituen muxu baten truke... 5 urte!!!



MANEX DANBORIENA IBARRA etxalartarrak ekainaren 8an urtea beteko du. Zorionak eta muxu bat bere familiaren partetik.



ANDONI eta **AITOR LAZKANOTEGİK** maiatzaren 12an eta 30ean urteak eginen dituzte. Zorionak pilotariak eta mila muxu Irati, aita eta amaren partetik.



AMAIA BALLARENA TELLETXEAK 2 urte beteko ditu maiatzaren 31n. Zorionak familia guztiaren partetik, berexiki aiatxi, amatxi, Izaskun eta Inigoren partetik. Lau bersarkada haundi!



Elizondoko **AMAIAK** 2 urte beteko ditu maiatzaren 31n. Zorionak eta hiru muxu haundi aiatxo, amatxo eta Ainhoaren partetik.



www.ttipi.net


SARA EXTREMERARI zorionak 11 urte beteko dituelako. Muxu haundi bat eta zorionak zure urtebetetzean!



IZARO ALDABE TELLETXEAK 6 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak eta 6 muxu haundi aita, ama eta Ugaitzen partetik.



ADRIAN GALINDOK bere lehenengo urtea beteko du. Zorionak eta muxu asko!



ALEX EXTREMERAK 9 urte eginen ditu. Zorionak eta muxu haundi bat!



JOSEBA GALINDORI 9 urte beteko dituelako muxu haundi bat eta zorionak!



NAROA GALINDOK bere zazpigarren urtea eginen du. Urte askotarako!



LUIS GALINDOK eta **INES MELENDEZ**ek bigarren urtea beteko dute elkarrekin ezkontuta. Zorionak eta segi horrela!



PEDRO EXTREMERAK 48 urte beteko ditu. Zorionak zuri ere eta urte askotarako!



UNAX ORDOKI ETXEPETELEKU lesakarrak 3 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak familia guztiaren eta bere xiki Nerearen partetik. Aunitz urtez!



MIRARI MAIZ aranztarrak ekainaren 10ean 24 urte! Aiaia bertze bat gehiago! Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat!!!



Sunbillako **PAUL IRAZOKI**k urteak bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak bere seme eta emaztearen partetik.



KEPA LEKUONA OLAIZOLAK 2 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak eta bi muxu zure lehengusu Pabloren partetik.



AITZIBER IRAZOKIRI bere Lehendabiziko Jaunartzea maiatzaren 11n egin zuelako zorionak Sunbillako familiaren partetik.



UNAX LARRABURU HERNANDORENA sunbillarrak urtea beteko du maiatzaren 28an. Zorionak pottolo eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

Muebles
Telletxea
 DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12
 Tfnoa.: 948 450 258 • 948 451 811

Lurr

maiatzak **31** larunbata

Mikel Urduyegui

Gaztelu Abesbatza
+

23:00 10€

Laguntzaileak:



01:00etatik aurrera 8€ kontsumizio batekin 03:30ak arte

ekainak **7** larunbata

RUMBA CATALANA ROOTS
Papawa

00:30

8€ aurretik 10€ takillan



ekainak **14** larunbata

JOXEINA
ETXEBERRIA

01:00 8€



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Heineken



ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK